

TOKIKOM

2019ko ekaina | 193. zenbakia

ai!k!r!

aldizkaria

Mad Sirats

SilviaPalumboUdalenDiru-SarrerakSondikaEtaLoiukoJaiak



Konekta zaitez gurekin!



 **Facebook:**
aikoraldizkaria

 **Twitter:**
@Aikortxori

 **Instagram:**
aikor.aldizkaria

 **Webgunea:**
www.aikor.eus




Zure argazkiak eta albisteak bidali

 **WhatsApp:**
688 86 41 35

 **E-posta:**
aikortxori@aikor.com

Parte hartu aikor.eus webgunean

Erregistratzeko, webgunearen goiko aldean ageri den SARTU botoiari klik egin



aikor!

Izena eman

Erregistratu zena

izena


Passordua

• Pasordua beratu zati

• Erregistratu berria nahi eta, zure argazkiak eta albisteak bidali

ERABILTZAILE BERRIA NAIZ ETA IZENA EMAN NAHI DUT aukeran klik egin

Kide bezala erregistratu nahi baduzu, eta zure **edukiak argitaratzeko** (argazkiak, hitzorduak, albisteak...) erabiltzaile arrunta bezala izena eman behar duzu, eta amaieran, aikortxori@aikor.com helbidera mezua bidali behar duzu zeure nahia jakinarazteko.

-  **4** Eritxiak
-  **5** Gutunak
-  **6** Laburrak eta albisteak
-  **11** Irudietan... M^a Dolores Castaño, euskararen alde
-  **12** Gurean izan da... Silvia Palumbo, kantautorea
-  **14** Gaztea eta... Violeta Perez, taekwondoka
-  **16** Txorierriko Zerbitzuen Mankomunitatea
-  **18** Udalen diru-sarrerak
-  **20** Gai nagusia... Paul Sirats Barandika, artista
-  **24** Sondikako jaiak
-  **28** Loiuko jaiak
-  **30** Berbalagun egitasmoa
-  **32** Txorierritarrak munduan... Myanmar
-  **34** Teknologia... Artemis programa
-  **35** Aikorrizketa... Gabi de la Maza 40 urte garrenean
-  **36** Sukaldaritza
-  **37** Denborapasa
-  **38** Agenda



18 Silvia Palumbo, kantautorea



24 Sondika eta Loiuko jaiak



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

KULTURA ETA HIZKUNTZA
POLITIKA SAILA

DEPARTAMENTO DE CULTURA
Y POLÍTICA LINGÜÍSTICA

 **Bizkaia**
foru aldundia
diputación foral



diruz lagundutako aldizkaria

aikor!
txorierriko aldizkaria

Argitaratzailea: TOTOAN, Txorierriko Euskara Elkarteen Federazioa (Lagatzu, Zorritzetan, Arrekikili, Tximintx eta Altzora)
Tel.: 94 452 34 47 / 688 86 41 35
aikortxori@aikor.com /
www.aikor.eus

Zuzendaria: Xabier Goienetxe

Erredakzio burua: Itxaso Marina

Erredakzio taldea: Maite Lekerika, Gaizka Eguzkitza, Juan Luis Goikoetxea

Kolaboratzaileak: Jon Legarreta, Eder Merino, Juanjo Ortiz, Xabier Diaz, Idoia Andres, Jon Goikouria Larrabeiti, Itallen bertso eskola eta Jose Angel Mentxaka

Zuzentzaileak: Joseba Butroe, Iñaki Astorkiza eta Jagoba Zallo

Publizitatea: Arantza Atxutegi (686 58 92 38)

Banaketa: Egunon

Maketatzailea: Gaizka Eguzkitza


Inprimategia: Gertu

Ale kopurua: 8.000

Lege gordailua: BI 137-02 ISSN 1578-9322

Portadako argazkia: Jon Goikouria Larrabeiti

Aikor! aldizkariak ez dau bere gain hartzen aldizkarian adierazitako esanen edota eritxien erantzukizunik.



JON LEGARRETA
Fisika Zientzietan doktorea

Argi dago galdera inozoa dela, baina izatez harrigarria bada ere, pertsona batzuen iritziz, Lurra laua da. Azken urteetan, gero eta gehiago dira euren burua *terrplanista* izenarekin aurkezten dutenak; haietako batzuk, famadunak. Are gehiago, Lurra Lauaren Sozietatea existitzen da, eta, gainera, aurtengo martxoaren 2an eta 3an nazioarteko lehenengo bilera egin zuten Buenos Airesen. *Terrplanisten* ustez, Lurra disko bat da:

Lurra, laua ala esferikoa?

erdian Ipar Poloan dago, eta diskoaren perimetroan, Hego Poloan, gaintitu ezinezko horma izugarri bat. Badirudi datorren urtean Lurraren mugara heltzeko bidaia bat egingo dutela; barregarria. Oraindik ez dakit zelan azaldu dezaketen ordu berean Lurreko herrialde batzuetan eguna izatea eta beste batzuetan gaua: Lurra laua baldin bada, leku guztietan edo eguna edo gaua izan beharko litzatekeelako; baina lelokeriak esatea libre da.

Argi dago teoria hau –hainbat erlijio bezala– sinesmena dela; eta ez zientzia. *Terrplanistek* esaten dute munduko gobernuak, Nazioarteko erakundeak, NASAk eta zientzialariak gezurretan dabiltzala, dena konspirazio bat dela. Gogoratu behar dugu hau ez dela konspirazio bakarra; badaude beste asko: klima-aldaketa gezurra da (Trump presidentearen esanetan, txinatarren konspirazioa da, amerikarren industriaren kontra); bakunak arris-

kutsuak dira; minbizia edo hiesa senda daitezke (nazioarteko laborategiek badi-tuzte gaixotasun horien kontrako farma-koak, baina ez dituzte ematen, “negozioa” galduko litzatekeelako); eta gizakia ez da heldu Ilargira –beharbada, konspiraziorik ezagunena–. Kezkagarriena da konspirazio horiek defenditzen dituzten pertsonen gizartean duten eragina, bai entzute handikoak direlako (futbolariak, musikariak, telebistako aurkezleak...), bai botere izugarria dutelako; Trump, adibidez.

Gaur egun, Internetek eta sare sozia-
lek gero eta eragin handiagoa dute gizar-tean, eta alde onak izateaz gain, alde txarrak ere badituzte. Hau da, ez da gauza bera pertsona arrunt batek gizakia Ilargira ez dela heldu Twitterren esatea, edo, adibidez, Casillasek: 2018ko uztailaren 23an tuit batean esan zuen moduan, jarraitzaile-kopuru askoz handiagoa izateaz gain, sinesgarritasun handiagoa ere baduelako.

Lokailuaren kondena

Patatak: klik. Entsalada: klik. Meloia: *pii*. Berriz ere meloia: *pii*. “Ordenagailuak dio ez dela meloia, kalabaza baizik”, esan dit supermerkatuko langileak. Meloi itxuradun kalabazari begira gaude biok: “Hartu beste bat; bestela, makinak *pii* egiten jarraituko du”.

EITBk Mister Bizkaia lehiaketan parte hartu zutenen argazkiak eskegi zituen bere webgunean. Algorta: klik. Arrigorria: klik. Durango: *pii*. Azken horren izen-abizenen ostean, lehen mister migratzailea izan zitekeela idatzi zuten. Guapoa, baina beltza eta



EDER MERINO
Kazetaria

migratzailea: etiketarik ez jartzea ezinezkoa zen, antza. Jokalari ona, baina marikoia; gidari aparta, baina emakumea; Ane da, baina zakila du; meloia, baina kalabaza...

“Baina” horiek guztiak bizitzaren etiketak dira, eguneroko *pii*-ak, norbanakook daramagun zama; eta, gainera, gure burua justifikatzera behartzen gaituzte askotan. Egin diren aurrerapausoak alde batera utzita, oraindik ere elkarriketa askotan “baina” sartzea beharrezkoa bada, normalizazio biolento baten aurrean gaude.

Hertzainak taldeak argi utzi zuen Gariren ahotsean: “Gerrara ohitu zintezke, baina gerra egon badago”.



Zeure eritxia agertu gura badozu, gutunen atal hau zabalik daukazu. Ahalik eta eritzi gehienek lekua euki dagien, ez da komeni makinazko 15 lerro baino luzeago idazterik gutunotan. Izena, telefonoa, helbidea eta nortasun agiriaren zenbakia agertu beharko dira. Laburtu behar izan ezker, Aikor!-ek bere esku dauka horretarako eskubidea. Zure eritxia aginduteko helbidea: Totoan, Aresti kalea 2, 48170, Zamudio edo aikortxori@aikor.com.

Erandioko industriagune bat, Lutxana-Asua errepideko 13. zenbakian dagoena, infernu bihurtu da auzokoentzat: kalitate zalantzarikoa kea botatzen duten tximiniak, zarata eta txistu jasanezinak (ezta leihoak eta ateak itxita ere), partikulak airean, auzotarrak etxean egotera behartzen dituen oso kiratsa handia... Eta hori guztia egunero zein gauero! Gainera, industriagunea metro gutxira dago, besteak beste, Elexalde urbanizaziotik, haur-eskolatik, osasun-zentrotik eta umeen parketik.

Orain dela egun gutxi, Erandioko Udalak idazki bat bidali die Erandiogoikoko auzokoei, eta horretan adierazi die zeintzuk diren udalak arazo honi dagokionez eman dituen urratsak. Era berean, gai honetan "eskuduntza gutxi" duela jakinarazi die, eta erantzukizuna Eusko Jaurlaritzako Ingurumen Sailak duela.

Auzotarrek zein Erandioko Auzokoa Herriko Elkartek 2014. urteaz geroztik salatu dugu egoera udalean, eta 2018ko urritik hona Eusko Jaurlaritzan ere egin dugu, arazoa larriagotu egin da-eta. Idazkiak bidali dizkiegu, sinadurak, argazkiak eta orto-argazkiak. Bideoak ere igorri dizkiegu, zeinetan auzoan eta inguruetan jasan behar dugun zarata entzuten baita.

Zazpi hilabetea auzokideek aurkeztutako salaketan ondorioz, eta kaltetuen batzordeak eta Auzokoa Herriko elkar-

Kutsaduraz ari gara



teak amankomunean egindako lana dela-eta, zarata neurtuko dutela agindu digu udalak. Neurketak aukeratutako enpresa batek egingo ditu.

Baina baten batek uste du neurketa horiek egon daitekeen kutsadura-arazoa konponduko dutela? Egoera jasanezin

honi konponbidea emateko konpromisoa hartuko al du inork? Neurketen emaitzak edonolakoak direla ere, arazoak hortxe jarraitzen du. Konponbideak jada behar ditugu.

Erandioko Auzokoa Herriko Elkartea

ERREKA LONDO ETXEA

Eguneko menua, asteburuko menu berezia, karta, enpresen bazkariak, jaunartzeak, familiar bazkariak

Arteaga, 80
Zamudio 48170 (Bizkaia)
Tfnoa: 94 452 14 19
Faxa: 94 452 26 29

GORBEIA MERTZERIA

Gorbeia kalea, 7
ZAMUDIO
94 655 90 06

Hortz-klinika IDOIA ZUBIETA

Osasun-zentroa & Hortz-estetika
HORTZ-INPLANTEAK - ESTETIKA-ORTODONTZIA

Arestia doktorea, 11. - 1. esk.
48011 BILBAO
T: 944 416 322

Uribe Plaza, 1
48170 ZAMUDIO
T: 944 521 370

AmAr illepaindegia

Astearte-ostiralea:
9:00-19:00
Laburubata:
8:00-13:30

Uribe plaza, 1 beheko
Zamudio
94 4520419

CAFE-BAR BIDE-GORRI

Txinbo kalea, 9
48170 ZAMUDIO
94 452 26 75


Askotariko pintxoak - Plater konbinatuak
8:00etatik irekia
WIFI gunea

Carrefour express

ORDUTEGIA
Astelehenerik ostiralera arte
9:00-14:30 / 17:00-20:30
Larunbatean
9:00-14:30

Pago kalea, 5
48170 ZAMUDIO

Okerrak zuzenduz

UDALBATZAK
(2015-2019)

Aurreko alean, Espainiako Kongresurako hauteskundeetan emaitzen berri eman genuen 8. eta 9. orrialdeetan. Larrabetzuko emaitzak jakinarazteko orduan, akatsa egin genuen, 2016ko zutabearen Deriori zegozkion datuak ipini genituen eta. Datu zuzenak ondoko taulan daude.

Bestalde, Jon Ander Aurrekoetxea Artetxeri egindako elkarrizketa (babes-tutako edukia) argitaratu genuen 22. orrialdean. Horretan, Aurrekoetxea La-

rrabetzuko EAJko alkategaia zela adierazi genuen, baina hori ez zen zuzena: Aurrekoetxea Lezamako alkatea izateaz gainera, Lezamako EAJko alkategaia izan da azken udal hauteskundeetan.

Azkenik, 31. orrialdean, grafiko batzuk ipini genituen, Txorierriko udalbatzak 2015-2019 denboraldian nola osatu diren erakusteko. Loiuko grafikoan koloreak nahastu genituen eta EAJri kolore urdina eman genion, berde ilunaren ordeaz. Grafiko zuzena orrialde honetakoa da.

LARRABETZU

	2019	2016
EH BILDU	593 % 45,62	484 % 42,09
EAJ-PNV	478 % 36,77	379 % 32,96
ELKARREKIN PODEMOS	120 % 9,23	209 % 18,17
PSE	54 % 4,15	20 % 1,74
PP	21 % 1,62	32 % 2,78
VOX	12 % 0,92	
PACMA	8 % 0,62	1 % 0,09
CIUDADANOS	8 % 0,62	13 % 1,13
BESTEAK	2 % 0,16	2 % 0,17
ESCAÑOS EN BLANCO		4 % 0,35
PCPE		2 % 0,17
ZURIAK	4 % 0,31	4 % 0,35
BALIOG.	9	10
PARTE-H.	1.310 % 83,60	1.160 % 74,26
ABST.	257 % 16,40	402 % 25,74

ZAMUDIO-DERIOKO LURLANGILEEN ETXEA
Santi Mami auzoa, 1
Tel.: 94 454 10 06
Faxa: 94 454 12 15
48170 Zamudio (Bizkaia)

SANTI MAMI
ALAITARITZA
Nerea Pedrosa Cof. 517
COOP. CANADERA ZAMUDIO DERIO
Tel.: 94 454 13 77 - 689 04 31 15
Faxa: 94 454 12 15

aldekone
hortz klinika
Tel.: 94 454 15 87

Anuska Prieto Aguilar
Odontologoa

Unibe 7, behea
48160 DERIO (Bizkaia)

- Especialitate guztiak zentru bakar batean
- Aurrekontua doan
- Especialitatea: umeak

astikenemotor
www.ASTIKENEMOTOR.com

DERIO - 946 451 781

OAKLAND
ENGLISH

IKASTARD TRINKOAK, UDAN
MAILA GUZTIAK
946522857
LEHENDAKARI
LEIZADLA PLAZA, 2
48170 ZAMUDIO



Larrabetzu



Sondika

Ekainaren 15ean, udalbatzak osatu ziren eta Txorierrin ez zen sorpresarik egon: EH Bilduk Larrabetzuko alkatetzari eutsi dio; EAJk, gainerako herrietakoei. Herri guztietan alkate bera edukiko dute datozen lau urteotan: Esther Apraiz (EAJ), Derion; Aitziber Oliban (EAJ), Erandion; Iñigo Gaztelu (EH Bildu), Larrabetzun; Jon Ander Aurrekoetxea (EAJ), Lezaman; Josu Andoni Begoña (EAJ), Loiu; Xabier Zubiaur (EAJ), Sondikan; eta Igotz Lopez (EAJ), Zamudion.

Udal hauteskundeak maiatzaren 26an izan ziren. EAJk zazpi zinegotzi eskuratu ditu Derion, 2015eko hauteskundeetan baino zinegotzi bat gehiago; EH Bilduk, hiru zinegotzi (zinegotzi bat galdu du); eta PSE-EEK, hiru zinegotzi. EH Bilduk zazpi zinegotzi lortu ditu Larrabetzun (bat gehiago); eta EAJk, lau zinegotzi (bat gutxiago).

Udalbatzak osatu dira



Derio

Lezaman, EAJk zortzi zinegotzi ditu (bi gehiago); eta EH Bilduk, hiru zinegotzi (bi gutxiago).

Bestetik, EAJk bederatzi zinegotzi lortu ditu Loiu (bat gehiago); EH Bilduk, 2; eta PPK galdu du zuen zinegotzia. Son-

dikan, EAJk zazpi zinegotziak mantendu ditu; EH Bilduk ere hiru zinegotziak mantendu ditu; eta PSE-EEK, zuen bakarra. Zamudion ere ez da aldaketarik egon: EAJk jarraitzen du zazpi zinegotzi izaten; eta EH Bilduk, lau.

Azkenik, EAJk bederatzi zinegotzi eskuratu ditu Erandion; PSE-EEK, bost (bat gehiago); EH Bilduk, bost (bi gehiago); eta Elkarrekin Podemosek, bi. Bestalde, Gane-mosek galdu ditu zituen lau zinegotziak; eta PPK, zuen zinegotzi bakarra.

Udal hauteskundeak ez ezik, Foru eta Europako hauteskundeak ere izan ziren maiatzaren. Emaizak www.aikor.eus webgunean daude ikusgai.



Lezama



Zamudio



Loiu



- Plater konbinatuak
- Ogitartekoak
- Kaxolak

BIZKARGI KAFETEGIA
Euskal Herria Kalea
48160 - Derio (Bizkaia)
94 454 16 55



Abelino Arraindegia

Gorbea kalea, 4 - 48160 DERIO
T: 94 602 75 25-6

ADARVE KAFETEGIA

Gosariak
Plater konbinatuak
Pintxoak
GIRO ONA

Sollube, 2 DERIO Tel: 94 608 95 31

Ume sahararrak, berriro Larrabetzun

Udalak "Bakeleku Udalekua" proiektuan hartuko du parte beste behin, Bakeleku Udalekua Bizkaia eta Zumaiaiko Darahli elkartearen laguntzarekin. Ondorioz, 10 urtetik 12 urtera bitarteko 30 neska-mutil sahararrek emango dute uda Larrabetzun. Iazko moduan, udalak frontoian, igerilekuan eta eskolan atonduko du udalekua, eta han sukaldari bat eta zortzi begirale boluntario –sei gazte larrabetzuar eta bi saharar– ibiliko dira umeekin.

Udalekua "Oporrak Bakean" programaren barruan dago. Horren bidez, errefuxiatuen kanpamenduetan bizi diren milaka eta milaka haur sahararrek bi hileko oporraldia igarotzen dute Euskal Herrian. Gainera, Euskal Herria eta Sahararen arteko kooperazioa sustatzen da.

Lanak, Derion eta Lezaman

Deia egunkariak argitaratu duenez, Euskal Trenbide Sareak (ETS) bidegurutze berria egingo du Derion, Txorierri etorbidea eta Mungialde etorbidea lotzen diren tokian. Kale horiek tren-geltokiaren ondoan daude. Lanak datozen asteotan hasia espero da eta 18 hile iraungo dute. Azaldutakoaren arabera, bidegurutzeak trafikoa arinduko du, noranzko biko erre bi ere atonduko baitira.

Bestalde, ETSk Kurtze Lezamako auzoan dagoen azpiko pasabidea kendu, eta horren ordez goitiko pasabide bat eraikiko du, tren-geltokia eta auzoa lotzeko. Pasabideak 6,5 metro inguruko luzera edukiko du eta, eskailerekin gainera, igogailu bi ipiniko dira, mugikortasun urriko pertsonak ere erabili ahal izateko. Kasu honetan ere lanak datozen asteetan hasiko direla aurreikusi da eta sei hile inguru iraungo dute.

Munduko ikuskizunik handiena, Lagatzu Egunean

Lagatzu Zamudioko euskara elkarteak 20 urte bete ditu aurten; eta elkarteak urtero antolatzen duen euskal jaiak, 10 urte. Urteurrenak ospatzeko, herrira munduko ikuskizunik handiena ekarriko dute: zirkua. "Zirkua herrikoia izango da, zamudiotarren zirkua", esan digu Iñaki Atxutegi elkartearen kideak.

Ikuskizuna ekainaren 29an izango da, 11:00etatik aurrera Kultura Etxean. "Alde batetik, zirkuen ohiko ikuskizunak egongo dira: malabaristak, orekariak, pailazoak...; eta bestetik, 20 urtean aurrera eramandako lana ere adierazi nahi dugu zirkuan: horretarako, aurreko urteotan egindako dantzak eta abestiak ere azalduko dira ikuskizunean, eta, keinuaren bidez, hainbat ekintza ekarriko dugu gogora, hala nola helikopteroa, antzerki herrikoia eta Eskuetan dantza. Zamudiotarrek hilabeteak daramatzate zirkurako iaiotasuna lantzen. "Malabarismoa ikasteko tailerra antolatu dugu, hankapaluetan ibiltzen ikasteko, dantza akrobatikoa, magia eta pailazo-tailerrak... Herritarren erantzuna oso ona izan da eta tailer guztiak gainezka egon dira. Gainera, herrian beti dago talenturen bat eta gauza bereziak egiten dituzten zamudiotarrak ere topatu ditugu. Dena dela, ikuskizunez gainera, zirkuan parte hartzeko beste modu asko ere badaude, esa-

te baterako, hasierako desfilean. Nahi duena guregana hurbil daiteke beldur barik: modu bat edo bestea topatuko dugu zirkuan parte hartzeko".

Bestalde, euskara elkartearen ikurra duten oroitzapenezko kopak ipiniko dira salgai, eta Iñigito Txapelunek Lagatzuren omenez egindako abestiaren CDak banatuko dira. Abestia bazkaldu ostean aurkeztuko da jendaurrean. Ohi moduan, Taberna Ibiltariak eta horren kideekin batera abestera animatzen diren lagun-kuadrillek girotuko dute bazkalostea, umeentzako jolasak egongo dira eta Ingu Al Deu? taldeak erromeria eskainiko du 20:00etatik aurrera.



ELORRIETA
INSTALACIONES

ETXE- ETA INDUSTRIA-ELEKTRIZITATEA

Uribe kalea, 12 beheko Derio 48160
94 454 03 86
639 57 98 48 - 639 58 25 47

RPS: 084/10

OPTIKA IKUSLAN

Arbolantxa kalea, 5, beheko
ZAMUDIO
Tel.: 94 452 28 18

LIBURUDENDA PAPERDENDA
ZAMUDIO

EGUNEROKO PRENTSA, SALGAI

Garbea kalea, 5
48170 ZAMUDIO

Tlf. / Faxa:
94 452 29 10

“Larrabetzu oroimena” ekintza-programa

Laurogeita bi urte bete dira faxistak Larrabetzura sartu zirela, eta efemerideari lotuta hainbat ekitaldi antolatu dira ekainaren 19tik 28ra bitartean. Hilaren 19an, “Larrabetzu oroimena” udal proiektua aurkeztu zen jendaurrean. “Proiektuak herriko oroimena berreskuratzea du helburu eta Stoa Kataluniako enpresarekin garatu dugu. Proiektuak hainbat ardatz ditu, esate baterako, testigantzak eta Burdinazko Hesiko aztarnak berreskuratzea eta Anguleri kultur etxean oroimenaren zentroa egitea”, azaldu du Iñigo Gaztelu alkateak. Datozen egunetan ekintza hauek egongo dira:

–Ekainak 21ean, 19:00etan, Anguleri kultur etxean: Indusketak, Burdin Hesian. Gaztelumendi, Laukiz eta Gamiz-Fika.

–Ekainaren 22an: Asturiar miliziano eta gudariei omenaldia. Kalejira, ekitaldia Bolunburun, bazkaria...

–Ekainak 26an, 19:00etan, Anguleri kultur etxean: “Euzko gudariak kantaren lehen grabazioak 80 urte” hitzaldi-entzualdia, Iñaki Berazategiren eskutik.

–Ekainaren 26tik 28ra, Hori Bai gaztetxean: Gerra Zibilari buruzko komikien erakusketa, Iñaki Berazategiren eskutik.

–Ekainak 28, 19:00etan, Hori Bai gaztetxean: Lucio Urtubia anarkistari buruzko *Gerezi garaia* komikia aurkeztea, Mikel Santos Belatzen eskutik.

Antolatze-lanetan hauek hartu dute parte: Larrabetzuko Udala, Larrabetzu 1937, Aranzadi Zientzia Elkarte, Edes-tiaurre Arkeologia Elkarte.



Ekainaren 8an, Bizkaiko Atletismo Txapelketa izan zen Durangon, eta Mikel Valladares Lezamako atleta nagusitu zen bertan, gazteen mailan. Lezamarrak 400 metroko lasterketan hartu zuen parte eta, hori irabazteaz gainera, bere marka ere hobetu zuen: 52:40 segundo.


Valladares pozik dago eta hurrengo helburua Espainiako txapelketa da. Ekainaren 22an izango da Castellón. Lerro hauek idatzi geneituenean, gazteak oraindik ez zekien 800 ala 1.500 metroko lasterketan parte hartuko zuen. “Marka nahikoa daukat bietan aritzeko, baina zeinetan parte hartuko dudan entrenatzailearen eta bion artean erabakiko dugu”. Valladaresek finalerako sailkapena lortzea du xede, eta lortzen badu, iazko arantza kenduko du: “Aurreko urtean ezin izan nintzen txapelketa horretan aritu, lesionatuta ibili nintzen eta”. Gaztea Galdakaon entrenatzen da gaur egun.

Txorierriko atletak nagusitu ziren Bizkaiko Txapelketan



Mikel Valladares

Leire Barcia Beste Bira Loiuako klubeko atletak ere hartu zuen parte 400 metroko lasterketan, gazteen mailan, eta brontzezko domina ekarri zuen etxera. Bestalde, Egoitz Piñeirok 100, 200 eta 400 metroko



Leire Barcia

lasterketak irabazi zituen m40 mailan; eta Javi Allende, maila barean, 1.500 metroko lasterketa. Allende Estatuko atletarik onenetarikoa da bere kategorian, eta marka hau egin zuen Durangon: 4:27 minutu.



Jairik jai



Derio. Eskolan

- 19:00 Dantzak.
- 19:30 Txitxi-burruntzia.
- 20:00-22:00 El Despieste fanfarrea.
- 20:30 Txokolatada.
- 21:30 Sua piztea.

Loiu. Karpan

- 20:00 Diskofesta, Dj Pacorekin.
- 21:00 Txokolatada.
- 21:30 Diskofesta, Dj Pacorekin.
- 22:15 Sua piztea.

Zamudio

- 18:00 Ipuin-kontalaria.
- 18:30 Disko-txikia.
- 20:30 Su txikia piztea eta txitxi-burruntzia.

San Joan sua (Txorierri)

-21:00 *Antzinako San Joan gaia* ikuskizun antzeztua, Amagoia Guezuragaren eta Bertoko eta Hiru Bat taldeen eskutik.

-21:20 Sua piztea.

-21:20 Taloa jatea.

Lezama. Zorrijaia

-Goizetik aurrera: mendi ibilbidea, txaranga, herri bazkaria, kirol probak, dantzak, -Erdizka Lauetan musika taldea...

-22:00 Sua piztea.

Larrabetzu

-Antzerkia eta sua.

Gorpuzti (Erandiogoikoa)

Ekainak 20, eguena

- 12:00 Meza.
- 12:40 Aurrekua, elizan. Ondoren, kopaua nagusientzat.
- 19:30 Txupinazoa eta jaien hasiera (batukada eta dantza).
- 19:45 Buruhandiak eta musika-eskolako trikitilariak.
- 21:30 Herri afaria.
- 23:30 Erromeria, Iratzar taldearekin.

Ekainak 21, barikua

- 18:30 "Olgetan solas" familiarteko kirol jolasak.
- 20:30 Dantzen agerraldia, Goi-Alde taldeko nagusien eskutik.
- 21:30 Txanpiñoi solidarioa.
- 23:00 Erromeria, Barullo eta Zirkinik Bez taldeekin.

Ekainak 22, zapatua

- 12:00 Kalejira eta dantzen agerraldia, Goi-Alde taldeko umeen eskutik.
- 13:00 Puzgarriak.
- 15:00 Herri bazkaria.
- 17:00 Taberna Ibiltaria.
- 21:30 Txitxi-burruntzia.
- 22:00 Erromeria, Oxabi taldearekin. Osteen, Dj Munza.

Ekainak 23, domeka

- 06:30 Gosari musikatua.



Uztailak 12, barikua

- 18:30 Txupinazoa eta umeentzako puzgarriak.
- 21:00 Diskofesta, Xaibor-en eskutik.

Uztailak 13, zapatua

- 10:00 Mahaiak eta aulkiak banatzea.
- 10:00 "Goitioltza ezagutu" ibilalditxoa, Zorritzetan euskara elkartearen eskutik.
- 12:00 Kurutze dantza taldearen emanaldia.
- 13:00 Paella txapelketan izena ematea.
- 14:00 Paellak aurkeztea.

Goitioltzako jaiak (Lezama)

- 18:30 Dantzaldia, Urtza taldearekin.
- 20:30 Kontzertua: Mixerableak.
- 22:00 Erromeria, Joxpa taldearen eskutik.

Uztailak 14, domeka

- 13:00 Txakolina dastatzea, magiaz eta bertsoz jantzita.
- Bertsolaria: Arkaitz Estiballes.
- Magoa: Imanol Ituño.





Maria Dolores Castaño | Adinik ez, euskara defendatzeko

Aurtengo Korrika Txorieritik pasatu zenean, 96 urteko emakumea Lauroetan ikusi genuen korrika, euskararen alde. Suihiak animatu zuen zapatilak janztera, eta, lekukoa eskuan, auzoko jai-batzordeak erositako kilometroan Korrikaren eredu bihurtu zen. Bilbon jaio zen Dolores, eta urte batzuk eman zituen Galdakaon. Alargundu zenean Lauroetara etorri zen, alaba eta suhiarekin bizitzera. Arratsaldeak herriko nagusien etxean ematen ditu, kartatan jotatzen.

Testua eta argazkia: Jon Goikouria Larrabeiti
@jongoikouria

Doloresek maite dau
libre ibiltzea,
karta joakoan lagun
artera biltzea.
Diferentea dala
dogu aditzea,
nagusi izatea
ta zahar sentitzea.

Itallen Bertso Eskola



Udan ere...

ZURE OHEA ALDATUTA, ZURE BIZITZA HOBETUKO DUGU

SUITE DELUX LEIOA - Iparragirre 80, Leioa - Tel. 944 316 516

SUITE DELUX DERIO - Seminarioa, Leioa - Tel. 944 545 147

WWW.SUITDELUX.COM



a: Facebook Silvia Palumbo



a: Ecuador Etxea

“Gizateriaren erdiak pairatzen dituen miseriak ikusgai egitea dugu helburu”

t: Itxaso Marina Ondarroat

Zer da “Mujeres en Bandada” tailerra?

Tailerrean ahaldundute espresibo feminista lantzen dugu danborren, ahotsen eta mugimendu eszenikoen bidez.

Badira 10 urte egitasmoa Euskal Herri eta Estatuko beste herri batzuetara ekartzen duzula. Aurten, lehenengo aldiz egin da Lezaman. Zelan joan da?

Oso atsegina izan da Lezamako emakumeekin lan egitea, oso esperientzia polita. tamalez, tailerra ohi baino laburragoa izan zen; hala ere, asko ikasi zuten eta hori guztia baliagarria izango zaie aurrera jarraitzeko eta banda bat sortzeko, barruan daukaten guztia adieraztea ahalbidetuko diena.

Zurea ez da batukada tailerra, danborren tailerra baizik. Zein da ezberdintasuna?

Batukada Brasiletik datorren estruktura musikal, kultural, patriarkal eta matxista da, eta inauteriei dago lotuta. Beste herri batzuetara zabaldu da, nahiz eta amankomunean ezer ere ez duten, oso musika gogorraera delako eta energia handia duelako. Guk egiten dugunak ez dauka zerikusirik horrekin: gure lana emakume bakoitzaren-

SILVIA PALUMBO JAIME | kantautorea eta musika-trebatzailea

Argentinarrak danborren tailerra eman du Lezaman, Moreak hango talde feministak proposatuta eta udalaren eta mankomunitatearen laguntzarekin. Maiatzean biran ibili da Euskal Herrian eta Estatuko zenbait herritan, eta emanaldien eta tailerren artean tartetxoa atera du bere proiektuaren berri emateko.

gan hasi, eta taldean amaitzen da; gure barnean hasten dugu, kanpoko aldatzeko. Danborra beste baliabide espresibo bat da: zilborraren azpian dugun bigarren *chakra*-ren energia eta danborraren mintzaren energia batzen ditugu, gure gorputzaren alde lan egiteko. Gainera, danborraren mintz horretan, eduki patriarkalak barik, guk nahi ditugun edukiak, nahiak eta ametsak ipintzen ditugu.

Zeintzuk dira erabiltzen dituzuen erritmoak?

Uztartze erritmikoak dira, eta gehienbat Amerikako hainbat herritako erritmoe-tan eta bertakoetan oinarritzen dira. Herri batera ailegatzen naizenean, lehenengo

eta behin galdetzen dut zeintzuk diren ohiko erritmoak eta lantzen ditut: beste herri batzuetako erritmoeekin uztartzen ditut, nire ustez, muga musikalik ez dagoelako. Esaterako, Asturiasen izan nintzen lehenengo aldian hango jota eta Afrikako musika-egitura bat uztartu nituen eta bikain gelditu zen. Uztartze horrek abestia ere badu, fusio guztiek euren kanta dute eta: emakumeok patriarkatuaren kontra kantatu nahi ditugun abestiak dira. Gurea proiektu feminista da eta gizateriaren erdiak pairatzen dituen miseriak ikusgai egitea dugu helburu. Izan ere, Argentinan esaten dugun moduan, patriarkatua eroriko da; noiz edo noiz eroriko da.



a: Facebook Silvia Palumbo

Soinu-aztarna feminista

Silvia Palumbo Jaime kantautorea duela 55 urte jaio zen Argentinan. "Lesbiana naiz eta Argentinako azken diktadura militarrean hezi behar izan nuen, baina hori zapalkuntza eta indarkeriari lotutako beste istorio bat da. Nire herritik Buenos Airesera *sexialiatu* behar izan nuen eta han feminismoa ezagutu nuen 20 urte eta gutxi nituela. Feminismoak bizitza aldatu zidan: orain naizena berari esker da". Munduari begirada lesbiana-feminista batekin begiratzen dio harrezkero, eta horrek eragina izan du bere musikan. Horrela, bada, emakumeentzako sintesi politiko, musikal eta kaletar baten bila dabil etengabe. "La banda lavanda" egitasmoa bilaketa-prozesu horretan sortu zen orain dela 15 urte.

Palumbo eta bere banda, DesBandadas, biran ibili dira Euskal Herrian eta Estatuko zenbait herritan. Tailerrak egiteaz gainera, *Crónica musical feminista* diskoa aurkeztu dute. "Abestiak patriarkatuak eta matxismok eragindako biolentziak eta zapalkuntzak mintzatzen dira. Beharrezkotzat jotzen dut abesti horiek idaztea, emakumeok munduan soinu-aztarna feminista eraikitzen jarraitu behar dugu eta, seriotasunez eta modu sakon batean". Euskal Herrian, 12 emakumezko danborren talde inguru sortzen lagundu du.

Argentinako Diputatuen Ganberak kultura-interes nazionalekotzat jo zuen "Mujeres en Bandada" tailerra. Proiektua "La banda Lavanda" egitasmoaren barruan dago; zertan da egitasmo hori?

"La banda Lavanda" egitasmoarekin orain dela 15 urte baino gehiago hasi nintzen. Artearen hainbat esparrutako erremintak eta elementuak hartu, eta feminismoan oinarritutako metodologia bat garatzen noa. Zer egiten dut horrekin? Leku batetik edo bestetik deitzen badidate, hara noa, eta bandak sortzen laguntzen diet: oinarria eta lan egiteko modua irakasten diet.

Zein da banden eginkizuna?

Egia esan, oso proiektu autonomoa da, eta, kontzeptuei dagokienez, nahiko erradikala. Argentinan, alde batetik, leku publikoa okupatu egiten dugu, hau da, paisaiaren parte ez izaten saiatzen gara: jaiaren batean edo inauterietan bagaude, ospakizunari beste ikuspuntu batetik heltzen diogu, jai tradizionala edo patriarkala izan ez dadin. Gainera, kontuan hartu behar da

Argentinan jaiak oso sexistak eta misoginoak direla. Eta bestetik, inor joaten ez den lekuetara joan ohi gara: auzo eta herri txirotuenetara. Leku horietara beste begirada bat eramaten dugu, zapalkuntzaren begirada hegemonikotik oso urrun dagoena.

Kantautorea eta musika-trebatzailea ez ezik, ekintzaile feminista ere bazara. Hurbildu, mesedez, Argentinako emakumeen egoera.

Eskuineko gobernuak dugu orain dela hiru urtetik hona: oso gobernu zapaltzailea eta errepresiboa da. Era berean, kanpoko zorra oso handia da eta biztanleen % 35 pobrezian bizi da. Horrek pobrezia feminizatzea dakar, eta, bestalde, gizonengan ere badu eragina: berez oso matxistak dira, eta, txirotasunaren ondorioz, indarkeriak gora egin du. Ia egunero hiltzen dute emakume bat, eta berdintasun arloan ez dago garorazko politikarik. Feminizidioak salatze-ko, #NiUnaMenos mugimendua hasi zen 2015ean eta oso jendetsua da. Ondoren, marea berdearen mugimendua sortu zen, abortua legeztatze eskatzeko. Emakume

"Ahalduntze espresibo feminista lantzen dugu danborren, ahotsen eta mugimendu eszenikoen bidez"

askok egin dute bat mugimendu horiekin –emakume gazte askok, tartean–, eta feminismoa sendotu egin da. Gainera, emakume gazteek beren amak ere kontzientziatu egin dituzte.

Aldi berean, zapi urdin argien marreak ere gora egin du.

Gorro sortzaileak dira horiek, eta gehienak eliza ebanjelikokoak eta katolikokoak dira. Umetxoan hiltzaileon kontra, feministon kontra, agertu dira eta oso indarkeria handia sortu dute; gorroto handia. Batera egiten dugu aurrera, tamalez, baina feminismoa inoiz baino biziago dago Argentinan eta herri asko ere bizkortu egin dira.

HARAGITEGIA
URDAITEGIA
IMAZ

MUNGIALDE ETORBIDEA,2
TLFNOA: 94 454 10 75

DERIO
Eskerrik asko
etortzeagaitik

LEIRE BEGOÑA
ULE-APAINDEGIA

MUNGIALDE ETORBIDEA, 20
48160 DERIO
94 454 26 32

Jarrai lezaguazu Facebook-en

LOREGARBI **GARBIKETA ZERBITZUAK**

Garbi-ikusiak, orokorrak
Auzokoen konunitateak
Mantentze garbi-ikusiak
Bulegoak eta lokalak
Olinpiko enbriatzaile garbiketa
Bastoiak
Zabur bilaka

Besaide Plaza, 1 - B° Aldekone
48160 DERIO (Bizkaia)
loreagarbi@euskalnet.net

Tel: 94 406 49 92
656 712 443
Fax: 94 406 49 93

“Taekwondo barik ez nintzateke izango naizen pertsona”

VIOLETA PEREZ MANZANO | taekwondoka

Derioztarrak 17 urte ditu eta kirolari aparta da: aurkeztu den Euskadiko txapelketa guztiak irabazi ditu, bat izan ezik, eta hiru domina lortu ditu Espainiako selekzioarako. Etorkizun oparoa du taekwondoan, eta hura esfortzuz eta jarraitasunez egiten dabil.



t: Itxaso Marina Ondarroa

Pozik egoteko emaitzak dira horiek.

Bai, oso pozik nago: ahalegina denboraldi batean ez ezik, kirol ibilbide osoan egiten dugu, eta azkenean esfortzuak emaitza duela ikusten duzu.

Zeintzuk dira hurrengo txapelketak?

Euskadiko txapelketa irabazi, eta Espainiako txapelketarako sailkatu naiz. Tamalez, ezin izan dut senior mailako txapelketan parte hartu, hanka bietan zuntz-haustura dut eta. Hala ere, sendatzen noa eta 21 urte azpiko txapelketan arituko naiz uztailaren lehenengo astean.

Nola hasi zinen taekwondoan?

Lagunek izena eman zuten Doyan gimnasioan, taekwondo eskolan. Taekwondoan hasi ahal izateko, bost urte beteta eduki behar ziren eta nik lau urte nituen garai hartan. Beraz, ezin izan nuen eman izena. Lagunek eskolan ikasitakoa irakasten zidaten, eta asko gustatzen zitzaidan. Gainera, nire osabak boxeoa egiten zuen gimnasioan, eta azkenean neu ere hasi nintzen taekwondoan. Hasieran, ondo pasatzeko zaletasuna baino ez zen, baina gaur

egun nahitaezkoa da niretzat: taekwondo barik ez nintzateke izango naizen pertsona.

Zerk erakartzen zaitu?

Gauza askok. Batez ere lagunek, horiek ere ezinbestekoak baitira niretzat; eta maisu Asierrek irakatsi dizkidan balio guztiak: begirunea, diziplina, zintzotasuna, kirola egiteko gogoia, pertsoneri lagundu behar diegula... Horrek guztiak lagundu dit kirol hau gehiago maitatzen.

Nolako entrenamenduak egiten dituzu?

Aste barruan hirutan entrenatzen naiz eta ordubete eta laurden inguruko saioak egiten ditut. Zapatuetan, gimnasioan bertan edo Euskadiko selekzioarekin entre-

natzen naiz. Ordu biko saioak dira azken horiek.

Zaila da kirola eta ikasketak uztartzea?

Bai. Bueno, beharbada, DBHn nengoenean ez zen hain zaila; batxilergoan, ordea, bai, ikasketek konstantzia handiagoa eskatu didate eta. Entrenamenduez eta institutuko orduetaz eta lanez gainera, ingelesa irakasten ere jarduten dut eta azkenean dena pilotatzen da: nekea fisikoa zein mentala da. Kostatzen da, baina nahi izanez gero, egin daiteke.

Honik aurrera apur bat zailagoa, ezta? Unibertsitatean hasiko zara eta.

Bada, ez dakit. Batxilergoan gauza asko ikasi behar izan dugu buruz, eta esan

“Balio asko ikasi ditut taekwondoari esker: begirunea, diziplina, zintzotasuna, pertsoneri laguntzea...”

“Emakumezkoa izatea ez da oztopoa taekwondoan, ezta ijitoa izatea ere”



didate unibertsitatean ikaste-metodoa ezberdina izango dela. Bestalde, gustatzen zaidan zerbait ikasiko dut, ordu gutxiago izango dira...

Zer ikasiko duzu?

Hiru aukera izan ditut: Negozioen Ku-deaketa eta Giza baliabideetako Gradu bikoitza, Zuzenbidea edo Enpresen Administrazio eta Zuzendaritzako Gradua. Baina azkenean Zuzenbidea egingo dut. DBHko laugarren mailan nengoela, ekonomia gustatzen hasi zitzaidan, asko, eta esparru horretan ibili nahiko nuke.

Kirol ibilbidea berrartu dezagun. Matxismoa dago taekwondoan?

Nire ustez, emakumezkoen eta gizonen egoera nahiko antzekoa da. Egia da txapelketak ez direla mistoak, baina garrantzi bera ematen zaie gizonen zein emakumezkoen txapelketei. Beste kirol batzuetan, esaterako futboleko, ikusgaitasun gutxi ematen zaie emakumezkoen; hori ez da taekwondoan gertatzen. Ez, emakumezkoa izatea ez da oztopoa gure kirolean.

Eta ijitoa izatea?

Ezta hori ere. Nik ez dut inoiz arazorik izan.

Ijito ez garenoi bitxiak iruditzen zaizkigu zurea bezalako kasuak. Ezjakintasunagatik da?

Bai, kasu horiek ez direlako agerian egoten. Azken batean, 10 ijito lapurretan ibili direla esateak emakumezko ijito bat

unibertsitatean dagoela esateak baino askoz gehiago saltzen du.

Familiaren babesa ere garrantzitsua da.

Dudarik gabe. Osabak, adibidez, asko lagundu dit neure bidea egiten. Orain unibertsitatean dabil. Txikia nintzenean, bera bezalakoa izan nahi nuen.

Zer asmo duzu etorkizunari begira?

Unibertsitatara sartzeko nota nahikorik lortu ezean, urte sabatikoa hartzea gustatuko zitzaidakeen, arreta bakarrik kirolean ipini eta ahalik eta gehien disfruta-

tu ahal izateko. Izan ere, taekwondoa oso oso gustuko dut eta aurreko urteetan ezin izan dizkiot neure indar guztiak eskaini. Baina, noski, nahikoa nota lortzen dut eta ezin dut aukera galdu, gerta daitekeelako hurrengo ikasturtean unibertsitatean sartzeko nota askoz altuagoa izatea...

Noiz arte ibiliko zara lehian?

Nahi izan arte. Oso ona izanez gero eta Espainiako selekzioan ibilita, Olinpiadetan lehian, hogeita hamar urte eta pikora arte ibili ahal zara taekwondoan.

Gustatuko litzazuke Olinpiadetara joatea?

Baliteke; ez dut inongo aukerarik baztertzen. Nori ez litzazioke gustatuko, ba, Olinpiadetan parte hartzea?

Eta lan arloan, non ikusten duzu zure burua?

Ez dakit. Lehenengo eta behin karre-
ra egin eta bizi nahi dut, eta gero ikusiko dugu zer lan-irteerak dauden. Ikasketak aukeratu nituenean, ez nien lan-irteerei erreparatu, jakintzagaiei baizik, eta horiek atentzioa ematen zidaten edo ez. Gogorra izan behar du gustatzen ez zaizuna betiko egin behar izateak.



POLITEKNIKA IKASTEGIA
TXORIERRI
S.COOP.
Centro de Educación Secundaria y Formación Profesional
Larabide Heziketa eta Bigarren Hezikuntzarako Ikastetxea

Unitzaga Ibaita Kalea, 1
48190 - DEPIO | Tel.: 94 403 40 50 | info@txorierri.net
Fax: 94 403 40 61 | www.txorierri.net

Eusko Jaurlaritzak diruz-lagundutako ikastetxea

BATXILERGOA
• Zientziak Batxilergoa

ERDI MAILAKO HEZIKETA ZIKLOAK
• Mekantzazioko Teknikari

GOI MAILAKO HEZIKETA ZIKLOAK
• Fabrikazio Mekanikoko Diseinuko Goi-mailako Teknikari
• Produzioa Programatzeko Goi-mailako Teknikari
• Automatizazioa eta Robotika Industriako Goi-mailako Teknikari
• Telekomunikazioa eta Informatikako Sistemako Goi-mailako Teknikari
• Salmenten eta Merkataritza Esparruen Kudeaketako Goi-mailako Teknikari
• Ingurumen Hezkuntza eta Kontrolako Goi-mailako Teknikari

ikastolen
HETEL

*"Osabak asko
lagundu dit neure
bidea egiten; txikitan
bera bezalakoa
izan nahi nuen"*

Campus teknologikoa eta WhatsApp kanal berri bat, gazteen enpleguaren alde



Txorierriko Zerbitzuen Mankomunitateak modu berezian egin du gazteen aldeko apustu ekainean, eta, hainbat jarduera antolatu ditu gazteek enplegurako duten prestakuntza eta gaikuntza sendotzeko: campus teknologiko bat, Interneteko ikus-entzunezko ekoizpena barneratzeko; ekintzailatzaren gaineko gomendioak; 30 urte baino gutxiagorekin lan-merkatuan sartzeko gakoak; eta WhatsApp kanal be-

rrri bat, azken albisteak eta eskaintzak ezagutzeko, esaterako.

Jarduerak Enplegu eta Sustapen Ekonomikoko Zerbitzuaren bidez (EGAZ Txorierri) sustatu ditu, eta eskualdean enplegarritasuna hobetzeko etengabeko lanaren barnean. Ekintzak Udal Gaztedi Planaren barruan daude, eta Bizkaiko Foru Aldundiak laguntzen ditu diruz.

Lehenengo eta behin, "Enplegua eta Gazteria" jardunaldia egin da hirugarren aldiz ekainean. Hitzordua EGAZen egoitzan –Txorierri etorbidea 46, 13A– izan zen. Ekintza 18 urtetik 30 urtera bitarteko gazteei zuzenduta egon zen, eta horiek, pertsona ekintzaileen esperientziaren berri izateaz gainera, beka eta gazteentzako enpleguaren gaineko informazioa jaso zuten bertan. Isabel Pintorrek, Gaztedi Planaren koordinatzaileak, zenbait gomendio eman zizkien "enplegua topatzeko egunean egoteko"; eta Iñigo Mazok, EGAZeko Ekintzailatzako teknikariak, eskualdean ekintzaile gazteentzat dauden laguntzen inguruko informazioa eman zien. Era berean, laguntza horiek nola kudeatu azaldu zuen. Bestalde, Txorierriin dagoen prestakuntza ere hizpide eduki zuten jardunaldian, eta talde-dinamika bultzatu zen, enpresek lanpostuak betetzeko gehien eskatzen dituzten gaitasunak garatzeko.

Iñigo Umaran Saregileak programako kideak prestakuntzari eta enpleguari lotutako beken eta gainerako informazioaren berri eman zien gazteei. Programa hori foru aldundiak sustatzen du, eta erakundearen eta gazteen arteko komunikazioa hobetzea eta gunen komunak sareak

Apirilean, amen taldea ipini zen martxan laugarren aldiz. Taldea erditu berri diren amentzat da eta helburu hau du: amek esperientziak partekatzea, epaitu gabe eta lagunduta sentitzen diren gunen batean. Saioak Leire Etkezarragak zuzentzen ditu. Etkezarraga Gestalt taldeko hezitzailea da, baita pedagogo soziala eta terapeuta ere. Bere hitzetan, "amek sentimendu eta zirrara ugari partekatzen dituzte, eta prozesuan gainetik kentzen dituzte sama handia eta eurek euren buruari buruz dituzten iritzi negatiboak".

Programak oso harrera ona izan du eta aurten bigarrenegiz egin da. Iazko partaideek positiboki balioetsi zuten esperientzia, eta esan zuten oso erabilgarria izan zela eguneroko bizitzarako. "Beste

Laguntza emozionala, erditu ber





ehuntzea du helburu. Azkenik, Haize Truebak, Kuvu-ko sortzaileetako batek, "Mujer Inspira" programan izandako esperientzia azaldu zuen. Kuvu plataformak harremanetan ipintzen ditu gazteak eta etxean lekua duten adineko pertsonak.

Bestetik, ekainaren 17an, DBHko lau garren mailako ikasleek "Enplegua eta Ekintzailertza" jardunaldian hartu zuten parte. Horrez gain, ekainaren 24tik 27ra Teknogune Txorierriko bigarren campusa egingo da Derioko Kultur Birikan, Gaztedi Programaren haritik. Campusak *youtuber* eta *videostreamer* gaiak izango ditu ardatz eta % 100eko dirulaguntza jasoko du. Campusak helburu hau du: bideoak sarera igo nahi dituzten gazteak edo Interneteko ikus-entzunezkoen ekoizpena sakonago ezagutu nahi dutenak prestatzea.

WhatsApp bidezko alerta-zerbitzua

EGAZ Txorierriko mezularitza zerbitzuek eskaintzen dituzten aukeren alde egiten du eskualdeko pertsonengan hurbiltzeko. Horrela, bada, komunikazio-kanal berri bat sustatu du, enplegu eta formakuntza arloko azken albisteak erabiltzaileek momentuan ezagut ditzaten.

EGAZeko WhatsApp zerbitzuan izena ematen dutenek erakundeak argitaratutako enplegu-eskaintzak, prestakuntza-aukerak eta gainerako albisteak jasoko ditu. Zerbitzuan alta ematea doakoa eta erraza da: telefonoko agendan 681 251 800 telefono zenbakia gehitu behar da, eta hara EGAZ idatzita mezu bat bidali.



VIII. MIHILUZE TXAPELKETA, ARRAKASTATSUA.– Txorierriko Mankomunitateak antolatutako txapelketa honek aisialdian euskara erabiltzea, euskaraz ondo pasatzea eta hizkuntza lantzea du helburu. Aurten 10 eta 11 urte bitarteko Txorierriko 155 umek hartu dute parte txapelketan, martxotik ekainera. Aurtengo edizioan, Derioko bikotea geratu da lehenengoa (Ibon Eleceta eta Michelle Bilabel), Zamudiokoa bigarrena (Goizeder Lekerika eta Sare Zuazo), Lezamakoa hirugarrena (Uxue Perez eta Lexuri Argintxona) eta Deriokoa laugarrena (Ibone Perez eta June Txasko). Lau bikoteek familian disfrutatzeko bidaia bana jaso dute saritzat. Zorionak guztioi.

Zertan aritu dira gure gazteak?

Askotariko istorioak jaso ditugu Derioko institutuan. Gero eta zailagoa da ukatzea neskek neska izateagatik bizi duten eguneroko indarkeria, baina ez da bakarrik horretara mugatzen. Zenbait mutilek ere beren burua futboleko jokatzera behartuta ikusten dute "mutilen" munduan onar ditzaten. Mutil horiek ez dute futboleko gune segururik topatzen: indarkeriaz betetako mundua iruditzen zaie eta askotan beldurrez jokutzen dute. Maskulinitate hegemonikoak indarkeria hedatzen du, eta gazte askok gune seguruaren premia dute.

Gizarte-aniztasuna onartzeko eta ulertzeko zailtasunak nonahi topatzen ditugu: oraindik ere lan handia dago transfobia, homofobia, lodifobia, arrazismoa eta emakumeen kontrako indarkeria ekiditeko. DBHko 1., 2. eta 3. mailako ikasleek gai horiek eta beste batzuk landu dituzte aurtengo ikasturtean, urtero bezala, Mankomunitateak indarkeria matxista prebenitzeko antolatu dituen saioetan. Kontuan hartu behar dugu gazteek hainbat eta hainbat ordu

ematen dituztela eskolako eta institutuko irakasgaiak ikasten: fitxak, idazlanak eta azterketak eguneroko kontuak dira, baina hori ez da ikasten duten gauza bakarra.

Indarkeriaren sustraiak gizarte segregatu honen oinarri matxistetara daude errotuta, eta, besteak beste, pornoak edota bideo-joko bortitzek hura elikatzen dute. Maskulinitatearen erakuntza zatarrak eta sexualitatea askatasunez bizitzeko mugek desoreka nabarmena sortzen dute gizonen eta emakumeen aukeren artean. Oso ikusgarria da, esaterako, denboraren eta lekuaren jabetzearen dagoen desoreka: mutil gehienek patioaren erdigunea hartzen dute futboleko aritzeko, kirol hori gustukoa izan zein ez. Gunearen antolaketa eta arauak erabilera horren alde daude, eta mutilak horietaz baliatzen dira lagunek onar ditzaten. Neskei, bestalde, hainbat traba ipintzen zaie seguru eta eroso sentitzeko.

Nolanahi ere, ez dezagun gaizki ulertu: hau ez da sexuen arteko guda, arduren banaketa baizik. Gizarte justuago baten bidean beharrezkoa izango da gizonek maskulinitate berrietatik ikastea, eta emakumeek behar duten leku eta denboraren jabe egitea.

ri diren amentzat

ama batzuekin partekatzeak ziurtasuna ematen die, beren buruarenganako konfiantza berreskuratzen dute, eta aurrera jarraitzeko behar duten indarra lortzen dute. Aurreko taldeen balorazioak entzun ostean, taldea irekitzea eta talde bakoitzeko saio-kopurua handitzea erabaki da, konfiantza- eta segurtasun-giroa hobeto aprobetxatzeko, eta lan sakonagoa egin ahal izateko. 2019ko lehenengo taldeak uztailaren bukatuko du bere lana, eta irailaren beste talde bat egongo da interesatuta dauden ama guztientzat edo taldean jarraitu nahi dutenentzat.

Txorierriko Udalen diru-sarrerak

Aurrekontu publiko guztiak berdin sailkatzen dira. Diru-sarrerak bederatzi kontu-kapituluk osatzen dituzte hiru multzo nagusitan banatuta: sarrera arruntak, kapital-sarrerak eta finantza-sarrerak. Gainera, diru-sarrerak finantzarioak edo ez finantzarioak izan daitezke. Txorierriko Udalek 2000-2017 epealdian izan duten norabidea erakusteko, alderdi hauek aztertu dira herriz herri: sarrera absolutu arruntak, kapitalari lotutakoak eta finantzarioak. Aipatutako epealdian izan duten bilakaera ere aztertu da.

SARRERA ARRUNTAK Ohiko funtzionamendukoak dira	KAPITAL-SARRERAK Noizbehinkako funtzionamendukoak dira	FINANTZA-SARRERAK Noizbehinkako funtzionamendukoak dira
1. Zerga zuzenak –Ondasun higiezin gainerako zerga (OHZ) –Ibilgailuak –Jarduera ekonomikoa –Plusbalioak 2. Zeharkako zergak –Eraikuntza eta obra-lizentziak 3. Tasak eta prezio publikoak –Ura, estolderia eta zaborra –Kirola eta kultura-zerbitzuak –Idazkiak eta bulegoko gainerako kudeaketak 4. Transferentziak –Aldundiak, Udalkutxaren bidez % 98 –Eusko Jaurlaritzak % 1,4 –Gobernu Zentralak % 0,6 5. Ondarea –Alokairuak, kontzesioak, interesak...	6. Ondasunen salmenta –Sarritan, hirigintza jardueraren bidez lortutako lurak, lokalak, eraikinak... –Inbertsio mailako ondasunen salmentak 7. Transferentziak –Dirulaguntzak: inbertsioaren % 40-80 dira. Aldundiak % 50 Eusko Jaurlaritzak % 14 Gobernu Zentralak, E planaren bidez % 14 Enpresek % 21 Beste batzuek % 0,2	8. Aktiboak –Udalak emandako aurrerakinak, fidantzak, gordailuak eta abar (berreskuratzen dira) 9. Pasiboak –Maileguak: epe luzera eta laburrera
SARRERA EZ FINANTZARIOAK		SARRERA FINANTZARIOAK

t: Jose Luis Barrenetxea. Iturria: Udalnet

Sarrera arruntak ohiko eragiketak dira, garrantzi ekonomiko nagusia dutenak. Bost kapitulutan banatzen dira. Sarrera hauek goranzko joera izan dute 2008ra arte eta geroko urteetan mantendu egin dira orokorrean. Lehenengo grafikoan hauek adierazi dira zutabeen bidez: herri bakoitzeko urtez urteko norabidea, maximoa eta minimoa eta epealdiko batz bestekoa.

Kapital-sarrerak puntualagoak dira eta kapitulu bitan banatzen dira: alde batetik, erakundeen eta enpresen dirulaguntzak; eta bestetik, ondasunen salmentak. Kapitulu horiek biek igoera bizkorra izan dute 2008ra arte; 2011ra arte mantendu egin dira; eta handik aurrera, eraikuntzaren beherakada dela-eta, bereziki herri batzuetan desagertu egin dira aurrekontuetatik. Bigarren grafikoan urte-

roko joera, epealdiko kapital-sarrerak eta maximoak adierazi dira.

Finantza-sarrerak, maileguak direnean, finantza-erakundeetatik –Kutxa eta banketxeak– lortzen dira. Ondoko orrialdetako taulan zenbait udalek jaso dituzten maileguak jaso dira. Karga astuniki gabe, Larrabetzu 2006an eskatutako mailegua amortizatzeko bidean dago; eta Lezama, 2017an eskatutakoa. Beste udalerriek epe ertainean amortizatu dituzte maileguak. Sondikak eta Zamudiok ez dute aztertutako denboraldia mailegurik eskatu. Hau guztia Txorierriko udalen osasun finantzario onaren adierazlea da.

Urte oparoak eta urriagoak


Hirugarren grafikoan, sarrera arruntak, kapital-sarrerak eta sarreraren guztizkoa azaltzen dira, lerroetan eta milioietan adierazita; finantza-sarrerak, aldiz, zutabeetan eta milakoetan. Lehenengo hirurak euro

konstanteetan daude, hau da, inflazioaren arabera. Finantza-sarreraren barruan hauek hartu dira kontuan: maileguak (inflazioa kontuan hartu barik), aurrerakinak eta fidantzak itzultzea.


Sarrera arruntak nagusi izan ziren 2000tik 2003ra. Sarrera horiek eta bereziki kapitalari lotutakoek gora egin zuten 2004tik 2008ra. Bestalde, 2008tik 2011ra bitarteko urteetan krisia egon arren, aurretik kontratatutako obrek eta maileguek bigundu zuten sarreraren beherakada. Azken urteotan, sarrera arruntek gora egin dute, baina kapitalari lotutakoak maila minimoetan daude.

2000-2017 epealdi osoari erreparatuta, hiru joera ezberdindu daitezke: 2000tik 2003ra, sarrera arruntak izan ziren nagusi; 2004tik 2010era, kapital-sarrerak garrantzi handia hartu zuten; eta 2010etik 2017ra, kapital-sarrerak ia desagertu ziren, baina arruntek –zergak, tasak eta Udalkutxa–, berri, ia aurrekontu osoa hartu zuten.

SARRERA ARRUNTAK, 2000-2017: ZERGAK, TASAK, TRANSFERENTZIAK ETA ONDAREA




KAPITAL-SARRERAK, 2000-2017: DIRULAGUNTZAK ETA ONDASUNAK SALTZEA



MAILEGU SARRERAK

2.002	2.006	2.010	2.012	2.017
LOIU- 42.071 €	LARRABETZU - 400.000 €	DERIO - 3 MILIOI €	LARRABETZU - 25.299 €	LEZAMA- 250.000 €
		LEZAMA -344.039 €	LEZAMA -32.827 €	

SARRERAK: GUZTIZKOA, ARRUNTAK ETA KAPITALARI LOTUTAKOAK (€ KONSTANTEETAN); FINANTZA-SARRERAK (€ ARRUNTETAN)



Denok izan ditugu egun osoa marrazkiak egiten ematen zuten ikaskideak. Gehienek ez dute zaletasuna urrunera eramaten, baina gutxi batzuek, ordea, bai. Paul Sirats Barandika larrabetzuarra azken horietako bat da. Gaur egun, artista digitala da eta, besteak beste, bideo-jokoen gertalekuak, eszenaren girotzeak eta pertsonaiak diseinatzen ditu.

t: Gaizka Eguzkitza / a: Jon Goikouria Larrabeiti

Zer da concept art?

Arte digitala, marrazkiak tabletan egitea. *Concept art* da ikus-entzunezko ekoizpen guztiek –pelikulak, telesaioak, bideo-jokoak...– landu behar duten lehenengo gauza. Gidoia idatzi eta gero, gidoilariak esaten digu zer nahi duten eta guk hori marrazkietan irudikatzen dugu.

Zelan hasi zinen?

Betidanik egin ditut marrazkiak. Amak nik bizpahiru urte nituela egindako marrazkiak ditu oraindik (kar, kar). Garai batean, grafitiak egiten ibili nintzen. Eta 18 urte nituela *concept art* ezagutu nuen.

Baina Euskal Herrian artista digital batek bizi ahal du bere lanetik?

Ez Euskal Herrian, ez Espainian, ezta Europan ere. Goi-mailako ikasketak egon badaude –ez zeuden ni hasi nintzenean–, baina oso garestiak dira. Asiara edo Estatu Batuetara joan behar da.

Baina zu hemen zaude...

(Kar, kar) Bai. Etxetik egiten dut lan, batez ere Kanadako enpresa baterako: Yellow Bear. Haiek hara joatea nahi dute, baina nik ez dut argi ikusten, nire sorlekuari oso lotua naizelako: hemen ditut lagunak, bikotekidea... Nire bizitza. Ez da jaso dudan eskaintza bakarra, Japoniatik eta Estatu Batuetatik ere deitu didate eta. Onartuko banu, soldata eta lan-baldintzak askoz hobeak izango lirateke eta aurrerapauso bat izango litzateke, baina dirua ez da garrantzitsua.

Zein da zure lana?

"Lan egingo ez banu nire lana izugarri g

PAUL SIRATS BARANDIKA | artista digitala



Estudio handiagoek nire enpresa kontratatzen dute hainbat lan egiteko: esate baterako, *Sin City* eta *Mad Max* bideo-jokoetarako. Gaur egun horretan nabil, *Mad Max*en gertalekuak, eszenaren girotzea, pertsonaiak eta garraiobideak diseinatzen. Konfidentzialtasun-klausula bat daukat kontratuan, hau da, ezin dut nire

lana lau haizeetara zabaltu. Frustragarria da, baina tira... Bitartean, nire kabuz ere egiten ditut lanak. Esate baterako, Panamako lagun batzuek *Fractal* rol-jokoa diseinatzea eskatu zidaten eta laster jarriko da salgai. Ezin naiz geldirik egon, beti dauzkat marrazkiak buruan. Eta ezetz esatea kostatzen zait: langabetuaren sin-

moduan sentitzen naiz, ustatzen zaidalako"



"Kanpoan lan egiteko eskaintzak jaso ditut, baina nik ez dut argi ikusten, nire sorlekuari oso lotuta nagoelako"

"Ezin naiz geldirik egon, beti dauzkat marrazkiak buruan. Gainera, lan berriei ezetz esatea kostatu egiten zait"

"Egun osoa ematen dut lanari begira. Guztira, 14-15 ordu egiten dut lan egunero"

Zein izan da zure lan-ibilbidea? Zein lan heldu zara zauden lanpostura?

Ikastaro bat egin nuen Behargintzan, animaziorako hiru dimentsiotako modelaketaren ingurukoa. Ikasleetako bat aukeratuko zuten Torsion Animation Sondi-kako enpresan lan egiteko, eta ni aukeratu ninduten. Nagusiak, Andreu Luciok, ibilbide oparoa zuen, baina azkenean Estatu Batuetara joatea erabaki zuen –bertan jarraitzen du– eta enpresa itxi zuen. Ondoren, artisten ataria sortu nuen online: artistek osatutako gizarte sarea, nolabait esanda. Artistek bertan eskegitzen dituzte lanak eta enpresek horiek ikusteko aukera dute. Hainbat artista erakarri nituen, baina ez nion etekin ekonomikorik ateratzen jakin. Txarto egin nuen, ataria saldu beharrean, bertan behera utzi nuelako. Ezagutza handiagoa izan banu, negozio handia lortuko nukeen. Geroago, Silver Space animazio-estudioan ibili nintzen, baina, krisiaren ondorioz, pikutara joan zen.

Eta gero?

Neuk ere izan nuen krisia eta oposizioak prestatzen hasi nintzen. Bi oposiziotara aurkeztu dut nire burua: lehenengoak ez nituen gainditu, eta bigarrenetan, iskitotibiala apurtu zitzaidan eta ezin izan

dromeak jota nabil, pentsatzen dut ezin dudala ezetz esan. Nire egunek 48 ordu izan beharko lituzkete (kar, kar).

Zer da Project Vacuum?

Prestatzen nabilen nobela grafiko bat. Hasieran, lanik ez nuenean, aitzakia zen marrazkiak gizarte-sareetan eskegitzeko. Beraz, istorioa eta pertsonaiak garatzen

hasi nintzen. Egunen batean, bukatzen dudanean, nobela argitaratu nahiko nuke, nire kabuz, nik nahi dudan moduan egiteko. Agian *crowdfunding* baten bidez, hau da, Interneteko lagun ezezagunen ekarpenari esker. Baina horretarako, Instagram landu beharko dut eta ez daukat denbora handirik.



nituen azken saio fisiko bi amaitu. Gainerako saioak gaindituta nituen, eta helmugatik hiru hamarrenetara nengoela porrot egin nuen. Etsigarria izan zen. Momentu hartan depresioak jota ibili nintzen eta marrazkiak egiteari ekin nion berriro.

Zelan atera zinen zulotik?

Marrazkilariak diren lagun bik, Sergi Brosa eta Rafa Ter, animatu ninduten nire lana gizarte sareen bidez erakustera, enpresek ni gehiago ezagutzeko. Garai hartan ez nuen ez Facebook, ez Instagram, ez ezer. Niri beti kostatu zait nire lana jendarean zabaltzea, agian perfekzionistegia naizelako. Beraz, Art Station atarian eta Instagram gizarte-sarean eskegi nituen marrazkiak eta erabiltzaileen erantzuna oso ona izan zen. Gainera, lan-eskaintzak ere heldu zitzaizkidan, diskoen azalak egiteko, esate baterako.

Damutzen zara oposizioa gainditu ez izanagatik?

Ez, inondik inora. Atzera begiratzan badut, oraindik mingarria da, baina gaur egun egiten dudana nire pasioa da.

Zelangoa da zure egun arrunt bat?

Ordu pilo bat egiten dut lan: 14-15 ordu egunean. Goizeko 6etan esnatzen naiz eta ordu birik behin aulkitik altxatzen saiatzen naiz. Gimnasia ere joaten naiz. Egun osoa ematen dut lanari begira. Asteburuetan ere egiten dut lan, baina arrasti erdira arte bakarrik. Edonorentzat oso nekagarria izango litzateke, badakit, baina ohitura hartu dut, eta, batez ere, lanik egingo ez banu moduan sentitzen naiz, nire lana itzel gustatzen zaidalako. Eta horregatik lortzen dut erritmoari eustea.

Pozik bizi zara?

Bai, gorriak ikusi ditut, baina ondo bizi naiz. Lanak alde txarrak ere baditu: arte digitalaren industria ez da batere egonkorra, hau da, behin betiko kontraturik ez dago, eta dagoen lan-kargaren arabera egiten duzu lan. Enpresa handi batek zuzenean kontratatzen bazaitu, baldintzak



hobeak dira, baina zure kabuz ibiltzen bazara, ez dizute amerikarra izango bazina moduan ordaintzen, askoz gutxiago bai. Ona bazara, lana egon badago.

Zer egitea gustatuko litzazuke?

Egitasmo handi bi dauzkat buruan, Euskal Herrian egiteko: batetik, bideo-jokoak garatzeko ekoizpen-etxea sortu; eta

Patuaren kontua

Paul Sirats Barandika Garcia (Larabetzu, 1987) izen bakarra da. "Amaren kontua izan zen (kar, kar). Mitologia greziarraren arabera, Siratsek patua esan nahi du, zoria. Era berean, euskal mitologian Anbotorekin zerikusia duen pertsonaia omen da". Bere ibilbidea, aldiz, ez da batere bitxia, herriko eskolan eta Derioko institutuan ikasi zuelako. "Egia esan, ikasle penagarria izan nintzen eta 17 urte nituela institutua utzi eta aitarekin hasi nintzen lanean mekanika-tailer batean. Hori ez zen niretzat eta handik gutxira utzi nuen".

Marrazkigilea hemen hazi da, baina denbora libre duenean, Leioa, Galdakao edo Bilbora joaten da, lagunak bertakoak baitira. "Ez naiz oso taldekoia, ez naiz kuadrillako mutila. Lagun gutxi ditut, eta guztiak, sakabanatu-

ta". Ildo honi jarraituz, bere lanak ere ez dio mesederik egiten. "Bakarrik egiten dut lan eta ordu pilo bat ematen ditut bakarrik. Hainbat lagunekin nabil egunero harremanetan, baina online, ez zuzenean, eta batzuetan behar dut benetako pertsonekin hitz egitea, ukitzea...".

Lanak liluratu egiten du Paul, baina beste alde txar batzuk ere baditu. "Etxean lan egiten dudanez, nik neuk antolatu behar dut lana. Eta hori gogorra izan da niretzat, lehen diziplinarik ez nuelako. Dena dela, igande arratsaldean, marrazkiak egin barik pare bat ordu eman eta gero, berriro marrazkiak egiteko gogoia dut. Argi dago nagoen lekua nire lekua dela. Astelehenean ez nago nekatuta, gogotsu baizik, eta bat-batean eguena iristen zait".





Paul Siratsek hainbat proiektu ditu esku artean. Marrakzi hauek proiektuen zirriborroak dira



bestetik, *concept art* akademia bat bul-tzatu, hasiberriek bertan ikasteko, dirutza gastatu barik. Amorrua ematen dit gure esparruan hezkuntza hain elitista izateak. Horretaz aparte, bideo-joko baten arte-zuzendaria izatea ere ondo legoke, sormen-prozesu osoa menperatzeko. Hau da, nire ugazabak egiten duen lana.

Zeintzuk dira artista digital on bat izateko gakoak?

Ahalik eta gehien espezializatzea: de-netatik egiten baduzu, ez zara ezertan ona izango eta ez zaituzte kontratatuko. Hemen dauden enpresa gutxi denetatik egitea eskatzen dizute: programatzea, modelatzea, argia ematea... Baina nor-

malean erdipurdikoak dira; Estatu Ba-tuetan, aldiz, industria eta dirua gehiago dute. Beraz, lagun batek ilea egiten du; beste batek, begiak; beste batek, begieta-ko irisa... Pixar bezalako enpresa batean, 200 laguneko talde batek egun oso bat ematen du lanean, segundo bateko ani-mazioa garatzeko.

Libre dagoen txoriak fazil egiten du barre

txori tokia



TXORIERRIKO UDAL
EUSKALTEGIA



2019-20 IKASTURTEA

- Maila guztiak: HABEren A1-A2-B1-B2-C1-C2
- Ikasleen beharrianetara egokitutako ikasta-roak: gurasoak, merkatariak, mintzamena, perfi-lak...
- Autoikaskuntza.
- Euskeraz berba egiteko eskolaz kanpoko jardue-rak.

Matrikula
zabalik

ERDU GEUGAZ,
EGIZU EUSKERAZ!

NORENTZAT:

16 urtetik gorakoentzat.

ERRITMOAK:

- Astean 10, 7, 6, 5 eta 4 orduko ikastaroak.
- Astean 4, 3 edo 2 egunetan.
- Ikastaro trinkoak eta Autoikaskuntza (astean behin).
- Urritik ekainera.

MATRIKULA ZABALIK:

Irailaren 2tik 23ra.

DIRULAGUNTZAK ETA HOBARIK:

- % 50 edo % 75 eskuragai.
- Txorierrin erroldatuentzat, langabetuentzat, erretiratuentzat...

BULEGO ORDUAK:

8:30-14:00

16:00-18:00

Sua biztuko dabe osteria be

Sondikoztarrak prest dagoz San Joan jaiez danak emonda disfrutatzeko, eta hango Udalak jai-egitarau oparoa antolatu dau txikiek, gazteek eta helduek ederto pasau dagien. Zapia lepoan jantzi, eta lau egunean zehar herritar guztientzako ekintzak egongo dira, esaterako jolas-parkea, gastronomia txapelketak, kirola, dastaketak eta dantzak. Era berean, alkarkidetzak lekua eukiko dau jaietan eta, zertan esan be ez, San Joan sua protagonista nagusia izango da.



*“Jai-egun alaiak,
parte-hartzaileak,
bardinzaileak eta
solidarioak gozatu
gura doguz”*

*“Iron Team eta
I. Herri Lasterketea
dira aurtengo
nobedade nagusiak”*



a: Juanjo Ortiz

“Etxekoakaz eta lagunakaz jai-egun alaiak, parte-hartzaileak, berdinzaileak eta solidarioak gozatu gura doguz. Jai-egitarauak eskaintza zabala eta askotarikoa proposatzen dau kalean eta toki publikoetan, eta adin guztietako herritarrentzat, gainera!”, azaldu dau Estibaliz Atxalanda-baso Sondikako kultura zinegotziak.

San Joan jai-egitaraua ekintzaz beteta dator aurtengo. Antolatzeko orduan, udalak kontuan hartu dau aurreko urteko jardue-

rek izandako erantzuna, baita herritarrek inkesten eta mezu elektronikoen bidez helarazo deusez iradokizunak be. “Bestalde, jardueren ordutegia moldatu ohi dugu, egitarauan danetarako denpora egon daiten, jairako zein deskantsurako”. Jai-gunea betiko lez atonduko da, San Joan zelaian, hori “leku aproposa dalako eta danoi jaiatzeko aukerea emoten deuskulako”. Bertan karpa handia ipiniko da. “Oso sinbolikoa da. Karpea kuadrilen alaitasunagaz eta bizipozagaz betetzea dogu helburu”.

Barikuan txupinazoa bota, eta tiragoma-txapelketea egingo da. Talo txikiak dastatzeko aukerea be egongo da, eta Nogen taldeak eta Dj Munzak girotuko dabe gaua.

Zapatu goizean sukalki txapelketea egongo da, kalejirea, umeentzako jolas-parkea, Master Chef txikia eta jaietako nobedadeetariko bat: Iron Team. “Taldea egiteko kirol proba da eta ginkana-formatua dau. Ekintzan zortzi urtetik gorako edonork parte hartu leike, amamek eta aititek be, animatzen badira”. Besteak beste, mus eta tortilla txapelketak egingo dira arratsaldean. Modus Operandi eta Lehian musika taldeak agertokira igoko dira 23:30etik aurrera.

Domekea San Joan eguna izango da. Txistulariek eta fanfarre batek musikea eroango dabe herriko txoko guztietara, eta Sondikako Herri Lasterketea egingo da lehenengo aldiz. “Lasterketearen haritik, ibilbide erakargarria atonduko da herri barruan”. Ondoren, aurtengo “Sondika Pintxotan” txapelketea irabazi dauen pintxo dastatu ahal izango da eta, ohi moduan, herri bazkaria egongo da. “Herri bazkaria



funtsezkoa da guretzat, eta benetan uste dogu alkarte guztientzat be ezinbestekoa dala. Alkartzeko une aproposa da, berezia. Giro aparta izan ohi da eta hori oso-oso garrantzitsua da gurea moduko herri barentzat”.

Suziak eskuan

Domekea egun solidarioa be izango da, arratsaldean igel-toka txapelketeari esker batzen dan dirua Ataxia Friedreich gaixotasuna dabenei laguntzera bideratuko da-eta. “Gure ustez, ha lako ekimenen bidez lagundu ahal izatea harro egoteko modukoa da, hau da, ekimenetan jarduera solidarioak sartzea. Herritarrek be oso begi onez ikusten dabez ekintzok

*“Sondikan ez dogu
jokaera edo
jarrera sexistarik
onartzen. Gozau
eta errespetau!”*

eta parte-hartze ikaragarria egoten da”. Zalantza barik, urterik urte asko ikusi eta disfrutateko modua dago Sondikako jaietan; halanda guztiz be, San Joan sua ikusmin handiena sortzen dauen ekintzea da. “Suziak eskuan daroaguzala egiten dogun kalejireak sondikohtar eta bisitari asko era-

karten dau. Gogoan dogun irudia da eta hori aurtengo kartelean islatu gura izan dogu”. Dj Pacok “gaueko sua” biztuta mantenduteko ardurea hartuko dau.

Jaietako atzenengo eguna izan arren, astelehenean oraindino be egongo da disfrutatzeko aukerea: umeentzako jolas-parkea, jubiladuentzako kopaua eta Puro Relajo Nafarroako mariatxien kontzertua. Azken trakak amaierea emongo deutse aurtengo Sondikako jaiet. “Herritar guztiak animau gura doguz jaietan parte hartzera, gozatzera eta kaleak giro onaz betetzera. Eta, jakina, gogoan izan Sondikan ez dogula jokaera edo jarrera sexistarik onartzen. Gozau eta errespetau! Gora Sondika!”.


Finken administratzailea
LORENA GAMBOA AGUIRRE
Txorisolo 4, behea B **634 410 470**
48150 SONDIKA auzokidefincas@gmail.com

 **Goiri'78 s.l.**
Zerbitzu ofiziala

Izarza Pol.
48150 Sondika
Bizkaia
94 453 25 15
94 453 39 31

GALAIISA 
Estetika eta ile-apaindegia
94 453 04 85 - 94 471 10 51

Sabino Arana 1-3. SONDIKA

Ekainak 20, eguena

–19:30 Agrupacion Pentagramaren kontzertua, Kultur Etxean.

Ekainak 21, barikua

–15:00-17:00 Umeen jolas-parkea, eskolan. Gorondagane gurasoen alkar-teak antolatua.

–17:00-19:00 Dj animatzailea, Gorondagane guraso alkar-tearen eskutik.

–19:30 Txupinazoa eta zapiak banatzea, Gorabide alkar-tearen laguntzagaz.

–19:45 Tiragoma txapelketa.

–20:00 Talo txikiak dastatzea.

–23:30 Kontzertuak: Nogen + Dj Munza.

Ekainak 22, zapatua

–10:00 Sukalki txapelketan izena emotea, Hegalariak taldearen txosnan.

–11:00 Kalejira, Ipar-Elaiak txistu taldeagaz.

–11:30-14:00 Umeen jolas-parkea, zelaian.

–12:00-14:00 Master Chef txikia.

–12:00 Iron Team.

–14:30 Sukalkia aurkeztea.

–15:30 Zozketa, Garrasia taldearen eskutik.

–16:30 Mus txapelketa, Hegalariak taldeak antolatua.

Jai-egitaraua



–18:00 Balkoi Apainduen VIII. Lehiaketaren sariak banatzea, Udaletxeko batzararetoan.

–18:30 Tortilla txapelketan izena emotea, CD Sondika taldearen txosnan.

–18:30-19:30 "Jaurti zure hirukoitza" ekin-tza, Gorondabeko kiroldegian.

–20:00 Tortillak aurkeztea.

–23:30 Modus Operandi + Lehian.

Ekainak 23, domeka

–11:00 Kalejira, Ipar-Elaiak txistu taldeagaz.

–12:30-15:30 Fanfarrea: El Despiste Banda-Doinua.

–12:30 Sondikako I. Herri Lasterketa.

–13:00 Motorzaleak alkarretaratzea, Hegalariak eta Txori Bikers taldeek antolatua.

–13:30 "Sondika Pintxotan" txapelketa irabazi dauen pintxoaren dastaketa.

–14:30 Herritarren eta kultur eta kirol alkar-teen arteko bazkaria, Hegalariak taldeak antolatua.

–16:30 Trikileku, bazkarian.

–18:00 Txokolata, Nagusien Etxean.

–17:00 Igel-tokea. Ataxia Friedreich gaitasuna dutenen aldeko ekintza.

–19:30 Dantza agerraldia, Gorantzaileak dantza taldearen eskutik.

–22:15 Zuziak banatzea, liburutegian.

–22:30 Kalejirea eta San Joan sua.

–23:00 Dj Paco.

Ekainak 24, astelehena

–11:00 Kalejira, Ipar-Elaiak txistu taldeagaz.

–11:30-14:00 Umeen jolas-parkea, Ikurri-na plazan.

–12:00 Mezea eta aurrekua.

–13:30 Jubiladuentzako kopaua.

–19:45 Sariak banatzea: Iron Team eta herri lasterketa.

–20:00 Kontzertua: Puro Relajo.

–21:00 Amaierako trakea.



Modus Operandi taldea. a: Eider Iturriaga



EKAINAK 20-24



sondikako
bihotza



SONDIKA 2019 JOAN DEUNAREN JAIK



**ENDO PASA
JAIETAN!**

Sondikako euskara elkarte



IBARRONDO

FISIOTERAPIA
JARRERA-BERREZIKETA
ESKU-TERAPIA

MITXINE, 3
48150 SONDIKA
Tel. 94 453 92 00
Mugikorra 617 674 202
Mugikorra 688 601 871
fisiolibarrondo@gmail.com

IBARRONDO

Txorierri Et., 30
48150 SONDIKA

94 453 35 05
667 78 63 31



**PEÑA ATHLETIC
BETI HARROBIA**



**yedra
floristas**

Mikel Zarate, 2 - 48150 Sondika - Bizkaia
Telefonoa: 94 453 14 57 - yedrainterflora@hotmail.com

TXORIERRI

Inmobiliaria

Justo Ajuria, 2 Sondika - Bizkaia
Tel./Faxa: 94 471 12 82 - 94 471 18 11
txori-erri@euskalnet.net

Kortegatik gertu

AHOLKULARITZA, TASAZIOA
ALOKATZEAK - ESKUALDATZEAK
SALEROSKETAK
SEGERON BILBAOEN AGENTZIA



Lzpilen

PARAFARMAZIA BELAR-DENDA

Sabino Arana, 3 Iorja - 48150 SONDIKA (Bizkaia)
94 655 80 00 - 689 99 88 43 - lzpilen@gmail.com



auto-escuela **SONDIKA**

Gidabaimena eskuratzeko izapideak

Irakaskuntza teorikoa, praktikoa eta ikus-entzunezkoa

Mateo Bidaurrezaga 2
Telefonoa 94 471 00 10
48150 SONDIKA Bizkaia

Plaza iturriondo, 2 (goia)
Telefonoa: 94 445 90 67
48007 Zurbaranbarri - Bilbo



IRATXO

gozotegia

tarta pertsonalizatuak
brufak
lelak
pastelak
pastak

Mikel Zarate, 2 - 5. Iorja - Sondika, 48150 - 94 645 09 19

Beste Bira, pregoilari

Ekainaren 27tik 30era San Pedro eta Santa Luzia ospatuko dabez Loium, eta hango Udalak jai-egitarau oparoa antolatu dau herritar guztiek ederto pasatzeko. Besteak beste, kirola, gastronomia eta musikea izango dira nagusi asteburuan.

a: Beste bira

Jaien hasiera ofiziala arratsaldean izango dan arren, ekintzak goiz-goizetik hasiko dira egunean: organo kontzertua, nagusien bazkaria, bilbainadak eta pala txapelketea. Pregoia Beste Bira atletismo klubak botako dau eta, aurreratu dabez, atletismoaren balioetan oinarritutako mezua irakurriko dabe. "Ohore handia da herriko jaietako pregoia botatzea. Oso eskertuta gagoz eta ahalik eta ondoen egiten saiatuko gara. Berbea atleta txikiek hartuko dabe". Loium atletismo kluba orain dala urte bi sortu zan eta harrezkero buru belarri aritu da Txorierrin atletismoa bultzatzeko. Gaur egun, bost urtetik gorako 60 kirolari inguru dagoz haren barruan. "Honen moduko esker ona beste akuilu bat da aurrera jarraitzeko". Pregoia bota ondoren, dantza modernoaren erakustaldia eta Mexikoko abestiak egongo dira.

Barikua gazteen eguna izango da eta Loium Bakarrak gazte alkarteak triki-poteoa, bazkaria eta elektrotxarangea antolatu dauz egun horretarako. Horrez gainera, padel eta tortilla txapelketak egingo dira eta *El cura y el moribundo* pelikulea ikusteko aukerea be egongo da, Loium Laztana alkartearen eskutik. Bestalde, herriko txikiek Bihotzak diskofestagaz gozatu ahal iznago dabe, eta 23:00etatik aurrera Kaotiko musika taldea igoko da agertokira. Ondoren, Akerbeltz erromeria taldeak hartuko dau lekukoa.

Paella txapelketea Loium jaietako ekintzarik erakargarrienetarikoa da eta zapaturako, San Pedro egunerako, antolatu dabe. Paellak protagonista nagusia izango dira egun horretan, baina beste ekintza batzuk be egongo dira, hala nola Freestyle bike show-a, mus txapelketea eta zenbait musika-saio. Era berean, joko birtualak izango dira paellen zelaian, eta arratsaldean photocall bat ipiniko dabe. Asier Bilbaoren ikuskizunaren ostean, Mo-

Kaotiko eta Mojos Escozios taldeek kontzertua eskainiko dabe barikuan eta zapatuan, hurrenez hurren

jinos Eskozios taldearen umorezko rock lotsagebeak ez dau publikoa hotz itxiko; ez horixe. Dj Ibai Sanchezek goizaldean girtuko dau.

Domekan, Santa Luzia egunean, egingo diran ekintzen artean honeek aiatu daiegez: eskupilota txapelketea, organo kontzertua, Slalom drift erakustaldia, magia ikuskizuna, dantzak eta erromeria. Bestetik, barikuan, zapatuan eta domekan umeentzako jolas-parkea egongo da goizez zein arratsalde, eta liburutegian argazkigintza tailerraren lanak ikusgai ipiniko dira.

Ekainak 27, eguna.

Jubiladuen eguna

- 12:30 Mezea, San Pedro eleizan.
- 13:00 Organo kontzertua: Miriam Cepeda eta Luis Alberto Requejo. San Pedro eleizan.
- 14:30 Nagusien bazkaria, Gure Etxea alkarteak antolatua.
- 16:30 Bilbainadak, Iñaki Basaberen eskutik. Gure Etxea alkarteak antolatua.
- 17:00 Dantza txapelketea.
- 17:30 Pala txapelketearen finalaurrekoa (1. kategoria), Irtzan taldeak antolatua. Frontoian.
- 18:30: Pala txapelketearen bigarren finalaurrekoa (1. kategoria), Irtzan taldeak antolatua. Frontoian.
- 20:00 Pregoia eta txupina, Beste Bira Loium alkarteagaz.
- 20:15 Dantza modernoaren erakustaldia.
- 20:30: "Elegancia mexicana" ikuskizuna, Mariachi Imperial taldearen eskutik.

Ekainak 28, barikua. Gazteen eguna

- 11:00 Kalejira.
- 13:00 Hamaiketako, Loium hotelean.
- 13:30 Triki-poteoa, Loium Bakarrak gazte alkarteak antolatua.
- 15:00 Gazteen bazkaria, Loium Bakarrak gazte alkarteak antolatua.
- 18:00 Padel txapelketearen finala: emakumezkoak eta gizonezkoak.
- 18:30 Elektrotxarangea, Loium Bakarrak gazte alkarteak antolatua.



Jai-egitaraua

–19:30 *El cura y el moribundo* pelikulea, Loiu Laztana alkartearen eskutik. Liburutegian.

–20:00 Diskotxiki: Bihotzak.

–21:00 VI. Tortilla txapelketea.

–22:00 Sariak banatzea.

–23:00 Kontzertuak: Kaotiko + Akerbeltz.

Ekainak 29, zapatua.

San Pedro eguna

–10:00 XV. Paella Txapelketea, paellen zelaian.

–13:00 Freestyle bike show-a.

–13:30 Paellak aurkeztea, paellen zelaian.

–16:00 Apar-jaia, paellen zelaian.

–16:30 Musika: Five Direction, paellen zelaian.

–17:00 Mus txapelketea, Loiuo Bakarrak alkarteak antolatua. Aterpean.

–18:00 Paella txapelketearen sariak banatzea.

–18:15 Pala txapelketearen finalak (1. eta 2. kategoriak), Irtxan alkarteak antolatua. Frontoian.

–18:30 Jamaica Orkestra, paellen zelaian.

–23:00 *Euskabaret* ikuskizuna, Asier Bilbaoren eskutik.

–00:30 Kontzertuak: Mojinos Eskozios + Dj Ibai Sanchez.

Ekainak 30, domeka.

Santa Luzia eguna. Txikien eguna

–11:00 Eskupilota txapelketea, frontoian.

–12:00 Mezea, San Pedro eleizan.

–12:30 Organo kontzertua: Pedro Guallar, Idoia Perez eta Javier Campo. San Pedro eleizan.

–12:50 Ohorezko aurrekua, San Pedro eleizan.

–13:00 Slalom drift erakustaldia.

–18:00 Oliver magoa.

–19:00 Dantzen agerraldia, Goi Alde dantza taldearen eskutik.

–20:00 Erromeria: Luhartz.

–21:00 Txokolatadea.

–22:00 Jaien amaierako trakea.



Mojinos Eskozios taldea

TURREGOITI
JATETXEA
Laurgoitia etorbidea, 27
48180 Loiu-Bizkaia
T-Faxia: 94 453 24 40
restauranteauregoiti.com

AGROLOIU
DENA BASERRIARENTZAT
946053450

Zabalotxe et., 12 / 48180 LOIU

BATZOKI LOIU

Eguneko menua
Asteburuko menua
Menu bereziak
Bakariak, enkarguz
Hamburgesak
Plater konbinatuak
Ahoak
Otarkeak

Abadetxe kalea, 8
LOIU
Tel. 94 612 95 35

elekma
URRATZEN BAT DUTEN ETXETRESNA ELEKTRIKO BERRAK
TELEBISIAK ETA ETXETRESNA ELEKTRIKO TUKAK

lehenengo markak • Prezioak onenak
BOSCH, SIEMENS, BALAY

Txori etxi bidea, 25-314 • 48180 Loiu
T. 944 539 232
www.elekma.es

sarraila-denda
Txorierri
ADITUAK SARRAILAGINTZAN ETA SEGURITASUNEAN

946 038 663
625 100 800
info@cerrajeriatxorierri.com
www.cerrajeriatxorierri.com

Alain Pomposo Zarate
Urdola, 4 lorja
48180 Dena



Leku zoragarriak ditugu Txorierrin bertan eta Bizkaian, eta berbalagunok irteerak antolatu ditugu horiek ezagutzeko. Horrela, "Ermitaz ermita" ohiko ekitaldia ez ezik, Lezama-Derio eta Larrabetzu-Morga irteerak ere egin ditugu, eta Sopelako eta Barrikako txoririk ederrenetan ibili gara. Iruña Veleia aztarnategi historikoan ere izan gara, eta Leintz Gatzaga ere bisitatu dugu.

Bestalde, Mintza Egunean hartu dugu parte. Aurten, Lapuebla de la Barkan ospatu da eta han bildu gara Euskal Herriko hainbat txokotatik etorritako lagunekin batera. Herriko upeltegia bisitatzeko eta ardoa dastatzeko astia ere izan genuen. Txakolina gure ardorik preziatuena da eta Talleri Morgako upeltegian azaldu ziguten hura zelan ekoizten den, eta upeltegiaren barruan dagoen Txorierriko ekoizleen txakolin gozoa dastatu genuen. Jatun onak ere bagarenez, pintxo-afaria prestatu dugu eta batzuk Algortara joan gara bazkaltzera. Odolosteak nola prestatu ere ikasi dugu, eta Basalbeiti baserriraino hurbildu gara, Iñaki Lekerikak labasua zer den azaldu ziezagun eta irina egiteko prozesua jakiteko.

Arterako zaletasun handia ere badugu, eta Getxophoto erakusketa bisitatu dugu. Era berean, Bilboko Arte Ederretako museoan izan gara "ABC. Bilboko Museoa-ren alfabetoa" eta "Euskal Artea" erakusketak ikusten.

Bai, ederto pasatu dugu amaitu den ikasturtean eta zuk ere baduzu euskaraz ondo pasatzeko aukera. Berbalagun proiektuak euskaraz ondo moldatzen direnak eta hain ondo moldatzen ez direnak elkartzeko, zaletasun baten inguruan euskaraz aritzeko. Oso metodologia ona

Zein ondo pasatzen dugun euskaraz!

Ikasturtea amaitu berri da, eta berbalagunok hura ondo baino hobeto aprobetxatu egin dugula esan dezakegu zalantza barik. Izan ere, kafe bana hartzeko edo pasieran ibiltzeko astero geratzeaz gainera, ekitaldi-sorta zabala egin dugu euskaraz. Gainera, ideia berriak ditugu datoren ikasturteari begira. Zu ere euskaraz ondo pasatzeko prest?



da euskaraz hitz egiteari beldurra galtzeko. Taldeak herrien eta parte-hartzaileen ordutegiaren arabera antolatzen dira. Beraz, ziur gaude zure beharrianetara eta helburuetara egokitzen den taldea egon-

go dena. Gainera, berdin dio zure euskara maila ona edo ez hain ona bada; Berbalagun egitasmoari esker hobetuko duzu zure euskara maila, eta lagun berriak ere egingo dituzu. Animatu eta zatoz!

Datorren ikasturtean, guraso gehiago euskaraz!

Txorierriko Zerbitzuen Mankomunitateak Gurasolagun programa antolatzen du urterik urte, eta gurasoen eta seme-alaben artean euskara bultzatzea du helburu. Derion badaude gurasolagun talde bi, baina, datorren ikasturteari begira, gainerako herrietan ere taldeak sortzea hartu dugu erronkatzat. Lagundu helburuari heltzen!



Gurasolagun egitasmoak euskaraz hitz egiteko ohitura duten gurasoak eta mintzapraktika egin nahi dutenak elkartzen ditu. Gurasoak eta seme-alabak; izan ere, familiak euskaraz bizitzeko programa da.

Zertarako izena eman Gurasolagun programan? Dakizun euskara erabiltzeko, beste guraso euskaldun batzuk ezagutzeko, hizkuntza-ohiturak aldatzeko, umeein batera euskaraz ondo pasatzeko, umeen arteko harremana euskaraz izatea indartzeko... Ikusten duzunez, arrazoi asko daude gurasolaguna izateko.

Gurasolagun taldeek hainbat ekintza egiten dituzte herriko eskolan bertan: tailerrak, antzerkia, eskulanak, jolastea... edo eurek proposatzen duten edozein ekintza. Gurasolagunak eskola-ordutegitik kanpo batzen dira, eurek adostutako egunetan eta orduetan. Zure herrian ere taldea sortzen laguntzeko prest?



**berba
Lagun**

telefonoa:
63575 35 95

e-maila:
txorierr.berbalaguna@gmail.com

antolatzaileak:
TOTOAN TEEF
Txorierriko Zerbitzuen Mankomunitatea

Myanmarreko esentzia, kulunkan



t/a: Jon Goikouria Larrabeiti

Myanmarren esentzia kulunkan dago. Asiako hego-ekialdeko lurralde askorekin gertatu den moduan (Thailandia adibiderik garbiena), turismo masiboaren minbizia Myanmarreko esentzia kutsatzen ari da. Hango argiak eta koloreek ez dute zerikusirik hemen ikus ditzakegunekin. Jendearekin antzekoa gertatzen da: mendebaldeko gizartean nork bere interesen alde egiten dugun bitartean, Myanmarren besteen ongizatea bermatzeaz arduratzen dira bertakoak.

1948tik 2011ra arte diktadurapean egon zen, eta gaur Lehen Munduko martxa hartzen dabilen Hirugarren Munduko lurralde zoragarria da Myanmar. Turismoa gero eta in-dar handiago hartzen ari da, eta leku bisitatuenetan egunsentiek eta iluntzeek prezioa dute atzerritarrek argazkiak egin ditzaten. Esperientzia ahaztezina da oraindik birjina den lurralde hau errespetuz bisitatzea, beranduegi izan baino lehen.





**BASALBEITIKO
TXAKOLINA**

Bizkaiko Txakolina
Denominación de origen



Goititza: auzoa, 37
(LEZAMA)
94 455 61 46

**TABERNA
GAZTE**

Eguneko menuak
Ospakizunak

Aretxalde, 141 - 48196 LEZAMA
944554422 - gazteditaberna@gmail.com



Enaitz
TABERNA

Ogitartekoak
Anoak
Plater konbinatuak

94 455 42 15
Garaioltza, 74
48196 Lezama

Apolo lehen, eta orain Artemis: ilargia itu duten bikiak

t: Xabier Diaz / a: www.quantamagazine.org

1969ko uztailaren 20an, Neil Armstrong-ek hitz famatu hauek bota zituen ilargitik: *"That's one small step for a man, one giant leap for mankind"*. Hau da: "Urrats txikia da gizon batentzat, baina jauzi handia gizateriarentzat". Ez nuen momentua zuzenean bizitzeko aukerarik izan, baina hainbeste dokumental, pelikula eta albistetan daukat ikusita... Eta oraindik ere liluratzen nau estatubatuar familiak egurrezko telebista zaharraren inguruan ikusteak, pantaila txikian azaltzen den gertakariari zirrarez beteta so.

1973. urterako, garaiko 25,4 mila miloi dolar gastatu ziren urrats hori emateko. Beste esplorazio batzuek bultzatutako jakin-mina, ekonomia eta abenturaren orde, bloke-politika motorra zutela, 24 astronauta –guztiak gizonetzakoak– ilargiaren inguruan ibili ziren biraka, eta horietako 12 ilargiratu egin ziren. Eta egia da gizartearentzat jauzi handia izan zela: alde batetik, akuilu handia izan zelako zientzia eta teknologiaren garapenerako (zirkuitu integratu txikiagoak, konputagailu ahaltsuagoak...); eta bestetik, muga bat apurtu, eta gure gizarte jakingura, ibiltari eta esploratzailearentzat Unibertsora lehenengo pausoa izan zelako.

Urteetan, beste helburu –eta aurrekontu– batzuk erabili dira agentzia espazialean, eta krisialdi ziklikoek ez

diote ez zientziari orokorrean, ez espazio-zientziari lagundu. Berrogeita hamar urte pasatu dira Armstrong-ek ilargia zapaldu zuenetik, eta hurrengo urratsak, Martera joateak, imaginario kolektiboan behin baino gehiagotan gertu ikusi dugun arren, iristen ez den etorkizun hurbil horretan jarraitzen du, fusioarekin gertatu den bezala. Eta badirudi blokeen arteko borroka motorrak berriro piztera datorrela: kasu honetan, Errusia eta Txina dira lehiakideak.

Artemis programa

Artemisa Apoloren arreba da eta grekoen mitologian ilargiarekin lotzen da. Ehizaren jainkosa ere bazen, eta nebarekin batera arkuia asmatu zuen. Ilargira berriro joateko epemuga 2028a bazen ere, Mike Pence AEBtako lehendakari ordeak 2024ra aurreratu zuen data eta, Marteko bidean, 2028an base iraunkor bat ipiniko dute gure satelitean. Maiatzean, aurrekontuak eta programaren izena aurkeztu zituzten: Artemis.

Lehenengo emakumea eta hurrengo gizona ilargiratzea helburu duen proiektua bost urte barru gauzatu ahal izateko, hainbat programaren garapena bizkortu beharko da: astronautak hara eramango dituen Orion


kapsula (Orion Artemisaren laguntzaile ehiztaria da mitologian), ilargiaren inguruan orbitatuko duen Gateway estazio espaziala (International Space Station-aren⁽¹⁾ antzekoa) eta espazio-anezka⁽²⁾ ordezkatzeko duen SLS kohe-tea, besteak beste.

Zientzia fikzioak gure planetatik haratago eraman gaitu askotan. Nire us-tez, goseaz edo ihes egin nahi izateaz gainera, gizateriak badauka "zeozer", zirrara bat-edo... Bikingoak, euskaldunak, portugesak, polinesiarak eta hainbat herritako lagunak gehiago ikustera bultzatu zituen zirrara, beharbada, eza-gutzen zuten mundua nahikoa ez zen eta. Konkista? Ez. Goazen beste mundu batzuk ezagutzera!



¹ https://eu.wikipedia.org/wiki/Nazioarteko_Espazio_Estazioa

² https://eu.wikipedia.org/wiki/Espazio_anezka



Ekainak 28/29/30

IRISARRI

(BAKE NAFARROA)



Gabi de la Maza 40 urte garrenean YouTubeko txindorra



t/a: Juan Luis Goikoetxea

Domekako Berrian, 2019ko otsailaren 10ekoan, argazki ederrez, eta orrialde biko elkarrizketan berbaldun agertu zen Gabi de la Maza. Solasaldi horretan, Zihara Jainaga Larrinaga kazetariari erantzuten dio:

–Irakasle aritu zara gehienbat lanean.

–“Soldadutzatik bueltan, irakasle ikasketak hasi nituen Magisteritza Eskolan – gaur eguneko Bilboko Hezkuntza Fakultatean–. Garai hartan, nahiz eta asko maite eta interes handia izan, oraindik ere eus-kara maila oso baxua neukan. Hasieran, zientzien adarrean matrikulatu nintzen, baina, Juan Luis Goikoetxea irakaslearen eraginez, euskal filologiara aldatu nintzen, egunean bertan”.

Niri, neure izenaren Berriako aipamenak interesa piztu zidan, ze “Juan Luis Goikoetxearen eraginez” zioen Gabik. Neure buruari niotson: bai deigarria 40 urte garrenean ikasle ohiak norbera izendatzea. Are deigarriago neure lau ilobekin –zortzi urtekoarengandik hasi eta lauokoaenera artekoekin– YouTubeko abestien artean Gabi de la Mazaren txantxangorria hamaitzoxo bider erabili ostean.

Poza da orain 40 urte Magisterioko harmailetan elkarrekin topo egiteari oraingo gailurretik begiratzea.

EHun eta hogei milioi bisitari eta 2.250 kanta-bideo dituen *youtuberrarengan* “eragina” izan nuela jakinik, bat-bateko erabakiz, Txorierriko Baserri Antzokian ordaindu nion bazkaria, bide batez elkarrizketa grabatua bilduz.

Urrezko txindorra, ohorezko txantxangorria da Gabi de la Maza. Zorretan nago berarekin, ikasle ohi hain sortzaile oparoarekin, eta ni bezainbat beste milaka euskaldun. Poza da orain 40 urte Magisterioko harmailetan elkarrekin topo egiteari oraingo gailurretik begiratzea. Joan diren urteak bete-beteak izan dituzu. Zure izena izanak bilakatu du ospetsu.

Har dezagun geuretzat, Gabi, Bernat Etxepare idazle-profetak dioskuna: “Benedika fortuna ala enkontru ona”.

Nire Autocasion NA

IMPORTAZIOA ETA SALMENTA

MUNGIALDE ETORBIDEA, 3 48160 DERIO-BIZKAIA

Mobilak: 686 97 06 41 - 649 16 77 12
Telefonoa-Fax: 94 454 51 92

www.nireautocasion.com info@nireautocasion.com

tik tak

EGUNEKO MENUA

ishenengo platera
bigarren platera
postrea
ogia
edaria

9€

T: 94 454 55 55

Bestorrene 5, Behea
48160 DERIO

HAUR-MODA

Tximeleta

Gernikako Arbola, 8 DERIO
94 454 14 35

Jatetxea SAN ISIDRO

EUSKO OKULETAN ESPEZIALIZATUA ETA ETXKO GOGOZINTZA APARTA

ESKONTZAK, BATAIOAK, JAUNARTZEAK

Karta zerbitzua - Laneko zerbitzuak - Janoki pribatuak
Janoki bakoitzean 180 toki - Sukaldaritza tradizionala

Telefonoa 94 454 07 98 Mungialde etorbidea, 25
Fax 94 454 54 12 48160 DERIO

Familia osorako kalitatezko arreta, zure esku

clínica dental ZAINDUZ hartz klinika

ZERBITZU BERRIAK
Logopedia
Podologia
Kiropraxia

Txanem etorbidea, 9 - Loria | Astearte eraikina | 48160 DERIO

94 454 01 01 | 657 79 54 45
info@dentazainduz.com | www.dentazainduz.com

PELUKERIA ESTETIKA LARRABETZU

Anguleri nº 2 Bajo - 48195 LARRABETZU
Tel. 944 558 144



Garbantz-entsaladea, hegaluze eta ahuakateagaz

a: www.cocina-familiar.com

Osagaiak:

- Garbantz-pote bat (egosiak)
- Hegaluze-lata handi bat
- 1/2 kipula gorri (dadotan ebagia)
- Tomate heldu bi (dadotan ebagiak)
- Ahuakate bat (dadotan ebagiak)
- Martorri apur bat (txikitua)

Gozagarria egiteko: limoi-ura, oliba-orioa, koilarakada txiki bat mostaza, martorria (txikitua), gatza eta piper-baltza.

Prestetako errea:

Lehenengo eta behin gozagarria prestatuko dogu: limoi-ura, oliba-orioa, mostaza, martorria, gatza eta piperbaltza flasko txiki baten ipiniko dogu. Flaskoari estalgia ipini, eta eragingo dogu harik eta osagaiak ondo nahasten diran arte.

Bestetik, katilu baten entsaladea egiteko osagaiak ipiniko doguz: garbantzua, hegaluzea, kipula, tomatea, ahuakatea eta martorria. Gozagarria bota eta ondo nahastuko dogu osagaiakaz. Entsaladea egin bezain pronto atera daiteke mahaira, edo hozkailuan gorde.

Ahunts-gaztai eta gerezi-poloak

Osagaiak (8 polo):

- 100 g ahunts-gaztaia (100 g)
- 100 ml esne-gain harrotu
- 50 g Glass azukre
- 16 gerezi

Prestetako errea:

Ontzi sakon batean ahunts-gaztaia sakatuko dogu sardexka bategaz, eta azukrea gehituko dogu. Esne-gain harrotua botako dogu ontzira. Gereziei hazurra kendu, eta txikituko doguz. Zatitxoak gaztaiari eta esne-gainari gehituko deusaguz. Dana nahastuko dogu, emeki eta behetik gora, esne-gainak behera ez egiteko. Nahasia poloak egiteko moldeetara botako dogu, eta makiltxuak ere ipiniko doguz. Hozkailura sartuko doguz harik eta gogortzen diran arte.



a: www.directopaladar.com

GAMINIZ
JATETXEA

Tel/Fax: 944 317 025
email: gaminiz@gaminiz.com

Ibaizabal 212. Parke Teknologikoa
48170 Zamudio - Bizkaia
GPS: 2°51'41" W 43°17'37"N

www.gaminiz.com

SARRIKOLA
OGITEGIA

Euskal pastela
Baseriko ogia
Bizkotxoak
Hainbat tarta

Sarrikola, z/g Larrabetzu
Tel.: 94 455 83 37
619 78 58 84

BC Fun Fitness GYM

EKIPAMENDU BERRIA

Segimendu
pertsonalizatua

Zamudio (IAT ondoan)
**Prezio bereziak,
talde eta
enpresentzat**

Jarraitu

Ugaldaguren II Industrialdea, partela 9, nabe 3
628836753 - 944520815 gymsxorierr@gmail.com

Umeen txokoa: bederatzi desberdintasunak

Ezetz bost desberdintasunak topatu irudi bien artean. Bukatzen duzunean, irudiak margotu eta moztu ahal dituzu.
a: www.yodibujo.com



Gomendioak

LITERATURA: NAGUSIAK

–*Denok gara Google* (Erein), Xabier Etxaniz Rojo.

–*Mundutik mundua* (Pamiela), Edu Zelaieta.

–*Juan Mari Lekuona – Bertsoak* (Pamiela), Jon Kortazar eta Paulo Kortazar.

–*Gurea dena: Komuna* (Pamiela), Pablo Sastre Forest

LITERATURA: GAZTEAK

–*Osaba otso* (Pamiela), Xosé Ballesteros. Irudiak: Roger Olmos; itzulpena: Koldo Izagirre.

–*Pirata ausarta* (Pamiela), Ricardo Alcántara. Irudiak: Gusti; itzulpena: Xabier Olaso.

–*Adiskideak gara?* (Pamiela), Anabel F. Rey. Itzulpena: Manu López Gaseni.

–*Siberia treneko ipuinak* (Erein), Bernardo Atxaga.

–*Ortzadar Arraina* (Pamiela), Marcus Pfister. Itzulpena: Ainhoa Irazustabarrena

Sudokua

		3				1		8
			5	8	7			9
	7			3				
8								
			4					
	6	4				3	1	
		5	7	4	1			
		7	6		8		4	
					5	9		

7	9	6	5	2	3	1	8	4
1	4	5	8	6	9	7	2	3
3	8	2	1	4	7	5	6	9
2	1	3	6	5	8	4	9	7
9	6	8	3	7	4	2	5	1
4	5	7	9	1	2	6	3	8
5	2	9	4	3	1	8	7	6
6	3	4	7	8	5	9	1	2
8	7	1	2	9	6	3	4	5



Dantzak

Derio

- > Nazioarteko folklore jaialdia. Uztailaren 31n, 13:15ean, San Isidro elizan.

Ikuskizunak

Derio

- > Udako zinema. Uztailaren 5ean eta 19an, 22:00etan.

Irteerak

Zamudio

- > Pirinioak. Uztailaren 12tik 14ra, Arroeta mendi taldeak antolatua.
- > Santoña eta San Vicente de la Barquera. Uztailaren 13an, Adintsuen Elkarateak antolatua.



Santoña. a: wikipedia

Lezama

- > Europako Mendiak. Uztailaren 25etik 28ra, Gailur mendi taldeak antolatua.

Jaiak

Derio

- > Santiago eta Santa Ana. Uztailaren 25ean eta 26an, San Kristobal elizan.
- > San Inazio. Uztailaren 31n, San Isidro elizan.

Bestelakoak

Derio

- > "Busti zaitez" ekintza, esklerosi anizkoitza duten lagunen alde. Uztailaren 14an.

Zamudio

- > "Busti zaitez" ekintza, esklerosi anizkoitza duten lagunen alde. Uztailaren 14an, igerilekuan.



Kale garbiketa | Hondakinen bilketa eta garraioa | Ur eta estolda sareen mantentze lanak | Hiri-altzarien mantentze lanak | Lorezaintza zerbitzuak | Eraikin eta lokalen garbiketa | Hondartzen garbiketa zerbitzuak | Garbiguneen kudeaketa eta mantentze lanak | Lurzoruen deskontaminazio lanak | Ingurumen-aholkularitza | Beste zerbitzu batzuetarako, galdetu.

Ibáñez de Bilbao, 3. 2. solairua, 48001 BILBAO

TEL. 94 424 38 34



Zamudio - Derio - Sondika - Lezama - Larrabetzu - Lolu

24h 94 480 09 09

ERRESERBAK:

www.taxiiseropuertobilbao.com

DESKARGATU APP-A

TAXI FEMADE



RUBÉN

ERLOJU-DENDA BITXITEGIA

Lehendakari Leizaola plaza, 5
48170 Zamudio
94 432 14 49



ZAMUDIO
Loteria Nacionala

Leizaola L. plaza, 7
Tel.: 94 452 09 59
Faxa: 94 656 69 95
josuastorkiza@gmail.com

NEURTU ZURE ERAKUNDEAREN HIZKUNTZA EGOERA

6 PAUSOTAN

ZUK ZEUK, AZKAR ETA ERRAZ

BETE ZURE AUTO-DIAGNOSTIKOA



bai euskarari

baieuskarari.eus
[/baieuskarariziurtagiria](https://www.facebook.com/baieuskarariziurtagiria)
[@baieuskarari](https://twitter.com/baieuskarari)

Ziurtagiriaren Elkartea

Lan eta bizi euskaraz



Baserritarren Alkartea
Lezama S. Coop.

Aretxalde, 21 BIS
48196 LEZAMA
Tel.: 94 455 60 16
e-mail: lezama@fcae.org
Bazkideak: 144

Pentsu naturalak

ZELAN?

POSTAZ:

Aikor!lagun fitxa(*) bete eta bidali:
Aresti, 2 behea - 48170 - Zamudio

E-POSTAZ:

aikortxori@aikor.com helbidera

TELEFONOZ:

94 452 34 47
688 86 41 35

AHOZ:

Zure herriko euskara
elkarteko kideren bati esan

(*) Fitxa aldizkarian bertan eta
erakundeetan, liburategietan,
komertzioetan... utziko ditugun
diptikoetan topatuko duzue.



Egin zaitez Aikor!lagun

Etxe bat, lagun bat



Egin zaitez Aikor!lagun



Izen-abizenak: _____

Helbidea: _____

Telefonoa: _____

e-posta: _____

IBAN+Bankuko zenbakiak: _____

Urteko kuota: _____

Aldizkaria jasotzen duzu? _____

Sinadura _____

30 euro _____ Beste bat _____

Orri hau helbide honetara bidali:

Aikor! Aldizkaria

Aresti kalea 2, behea - 48170 - Zamudio



15/1999 Lege Organikoari jarraituz, hau jakinarazten dizuguz formulario honetan sartzen dituzun datu pertsonalak fitxategi batean gordeko dira. Fitxategiaren erantzulea TOTAN TXORRIERIKO EUSKARA ELKARTEEN FEDERAZIOA da eta datuok kudeatzeko deia. Kontrakoa esaten ez diguzun bitartean, zure datuak kudeatzeko balmena dugula ulertuko dugu. Dena dela, edozein momentutan datuok eskuratu, balioagabetu eta zuzendu ahaliko dituzu. Horetarako, helbide honetara jo beharko duzu: ARESTI KALEA 2-BEHEA, 48170 ZAMUDIO (Bizkaia).

20:30ean
Fernan eta Natxo
tabernen artean



KULTUR ETXEAN

11:00 ARTISTEN DESFILEA

12:00 LAGATZU TXOU ZIRKUS

13:00 KALE-JIRA-BIRA, ZIRKO-POTEOA

15:00 HERRI BAZKARIA, Kultura etxean
15€ nagusientzat, 10 € umeentzat
Txartelak herriko denda eta tabernetan
salgai. Erosteke azken eguna ekainaren
25a, martitzena

17:00 TALDEKA KANTAU, TABERNA IBILTARIAAgaz,
UMEEN JOKUAK ZURESKU
egurrezko jolas tradizionalak

20:00 ERROMERIA, INGU AL DEU? taldeagaz



Animatu eta parte hartu koadrileagaz Jantzi zaitez antzinako euskal erropakaz!

**Zamudioko
talde
eta herritarren
ezinbesteko
laguntzea be
euki du**